# OSTARTE

1. 2017ko iraila euzkogaztedi.eus



GUREA
ERAIKIZ
BURUJABETU!

egi

Ia guriak egin du,
badegu zeinek agindu. (Bis)
Ez oraindik umildu,
alkarrengana bildu.
Gerra nahi duen guzia
berari kendu bizia.

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakearen alde. (Bis)
Zeinek nahi duen galde,
berari tira, dale.
Bala bat sartu buruan,
aspertuko da orduan.

Gu gera hiru probintzi
lehengo legerik ez utzi. (Bis)
Hoieri firme eutsi,
nahiz hanka bana hautsi;
jaioko dira berriak,
gu gera Euskal Herriak.

**Frantzisko Petrirena Rekondo "Xenpelar" (1835-1869)**

OSTARTE ALDIZKARIA
Argitaratzailea: Euzko Gaztedi, EGI
Euskadi, 2017

Proposamen edo kolaboraziorik bidaltzeko: egi@eaj-pnv.eus

# OSTARTE

## AURKIBIDEA

**1) Editoriala** ........................................ **4**

**2) Politika eta autogobernua** ........................................ **5**

Elkarrizketa: Iñigo Urkullu Lehendakaria ........................................ 5

Artikulua: Kontraesanak nahi bezala ........................................ 10

**3) Ekonomia** ........................................ **11**

Elkarrizketa: Pedro Luis Uriarte ........................................ 11

Azterlana: Inflazioa eta Milton Friedmanen paradigma aldaketa ........................................ 15

**4) Gizartea eta Kultura** ........................................ **19**

Elkarrizketa: Benito Lertxundi ........................................ 19

Artikulua: Ez ikusiarena ........................................ 23

Artikulua: Erantzunik ba ote? ........................................ 24

**5) Gazteria eta Memoria historikoa** ........................................ **25**

Elkarrizketa: Gerardo Bujanda ........................................ 25

Gazte enplegua: Novia Salcedo Fundazioaren kolaborazioa ........................................ 28

**6) Atzerriko kuriositateak** ........................................ **30**

## Editoriala

# Txikiak Handia Benzi Leidi, Asmoz Ta Jakitez

"Jaioko dira berriak, gu gera Euskal Herriak". Hala zioen Xenpelarrek eta aldagabe dirau mezu horrek. Euzko Gaztedi EGIko gazteok, gure aberriarenganako konpromezu haustuezina zaharberritu egin nahi dugu, berori baloreetan eta ezagupenaren transmisioan finkatuz. Egun, herriek dituzten arma garaitezinenak ezagutza eta borondate kolektibo solidarioak dira. Era horretan, Euskadik ere bere burujabetza bidean defendatu eta eraikiko dituen herritar konprometituak behar ditu. "Gu aberriarentzako eta ez aberria guretzako", erakutsi ziguten gure alderdiko zaharrek. Politika zerbitzu bezala ulertu ahal izateko, norberak lan propioa egin behar du herriari zer eskaini eukitzeko.

Formazioa eta baloreen eskualdatzea ezinbestekoa da beraz herriaren zerbitzari izan nahi duenarentzako. Garrantzi handiagoa du honek egungo gizartean, egia ez diren hainbeste mezu eta errelatoren artean bizi garen heinean. Gure proiektu politikoaren aurkariek prest dituzte euren kontakizunak, istorioak eta instrumentuak. Guk gure gazteria erronka intelektualari aurre egiteko prest egotea nahi dugu, ahalmen kritiko eta independientearekin. Agirre lehendakariaren berbetan "Herriak ez dira egun baten eraikitzen". Euskadi munduko plazan kokatzea izango da gure etorkizuneko betebeharra. Eta betebehar hori duintasun handiko mandatua da. Bide horretako instrumentu gisa jaio da OSTARTE, iluntasunean piztuko den argia. Presta gaitezen anai-arrebok garaipenerako, txikiak handia garaituko baitu asmoz eta jakitez.

**Aberri Batzordea**

## Sabin Etxea – 2017.05.08

# Iñigo Urkullu Lehendakariarekin Elkarrizketa

### 1. Baloreak, susperraldi ekonomikoa eta plangintza industriala

**a) Erantzukizun politikoak edukitzean, zer motatako gaitasunak edo bertuteak garatzen dira?**

Norberaren bertuteez aparte, norberak jakin egin behar du testuinguruaren hausnarketa egiten. Denborak kudeatu egin behar dira eta norberaren eta hurkoaren indarrak eta ahuleziak zeintzuk diren argi izan behar dira. Horrez gain, proiektu bateko kideak garela jakin behar dugu. Beraz, lantaldean gabiltzala bai pertsonekin zein alderdiarekin. Norberak, lantaldeaz aparte, helburuak, estrategiak eta ekimenak identifikatzen eta kudeatzen jakin behar du. Beraz, nire ustez taldearen kudeaketa oso garrantzitsua da. Ni hau egiten saiatzen naiz beti ere.

**b) Gizakia animalia politikoa da Aristotelesentzako, eta Hobbesen arabera gizakia otsoa da gizakiarentzat. Politika boterera heldu eta bertan mantentzeko instrumentua dela berriz Makiabelok. Zure esperientzia luzean oinarrituz, hainbeste joan-etorri ikusita, nola ikusten dituzu gizonak/emakumeak politikaren inguruan daudenean?**

Epe laburrera jokatzen. Nik uste dut politikagintza benetan zerbitzu publikoa dela eta beraz argi izan behar dugula gauzak ez direla gurekin jaiotzen ezta hiltzen. “Katea ez da eten” da gure esaeretako bat, eta nik neure burua kate horren kate-begi moduan daukat. Horregatik, epe luzera begiratu behar da, herri bat eraikitzea ez baita egun batetik besterako lana, jarraian egin beharrekoa baizik.

**c) Botereak gizatasuna eman ala kendu egiten die boteredunei?**

Kendu egiten die. Norberaren sinesmenak ez badaude gizatasunean oinarrituta, botereak badu norbanako bakoitza gizatasunetik urruntzeko tentazio edo arriskua. Hori da iruzurra, gizatasunik gabe egikaritzen den boterea. Askotan pentsatu dut politikagintzan profesionalki aritzen garenak ez garela politikan gabiltzan bakarrak. Badira milaka bolondres, gure alderdian froga daiteken legez. Hori ere politika da eta politika mota horri esker gaude gu hemen. Horregatik, askotan esaten dut ez dela politika botere iturri bezala ikusi behar.



> **Norberaren sinesmenak ez badaude gizatasunean oinarrituta, botereak badu norbanako bakoitza gizatasunetik urruntzeko tentazio edo arriskua**

**d) Deslokalizazioa eta globalizazioaren ondorioak ekidin ezin diren gizaldi honetan, ze eragin uste duzu duela globalizazioak eta internazionalizazioak Euskadin?**

Beti esaten dut globalizazioa mehatxua izateaz gain aukera ere badela. Beraz, ez dut uste soilik pentsatu behar denik deslokalizazioan edo efektu negatiboetan. Izan ere, efektu horiek Euskadin globalizazio aurretik eman ziren. Globalizazioa edo nazioartekotzea gertatu aurretik, enpresa asko joan egin ziren edo euren erabakitze guneak kanpora eraman zituzten. Eta alderantziz ere gertatu da, badira Euskadira etorri diren enpresak. Horretarako, Euskadin baditugu kanpotik inbertsioak erakarri ahal izateko tresnak: Import-Export eta *Invest in Basque Country* planak garatzen ari gara eta atzerriko inbertitzaile askok adierazi dute Euskadin inbertsioak egin edo-

ta bertoko enpresetako kapitalean parte hartzeko borondatea. Hori ere bada globalizazioaren aurpegi positiboetako bat. Nire ustez, Euskadin ekintzaile programak garatu behar dira hemengo gazteak kultura horretan hazi eta heziz.

**e) Badakigu, helburuetako bat BPG industriala euskal BPG osoaren %25era heltzea dela. Zein uste duzu izan behar dela gure etorkizuneko industriaren orientazio produktiboa?**

Orain dela gutxi Hannoverren 4.0 industriaren inguruko azoka egin da eta bertan, izan den estatu gabeko nazio bakarra geu izan gara. Izan ere, herri bezala RIS 3 estrategia onartuta daukagu, eta bertan aurreikusita dugu zeintzuk diren hiru lehentasunak: lehenik fabrikazio aurreratua (makina-erreminta, auto-mozioa, aeronautika, tren garraio sistema), bigarrenik energia berriztagarriak (haize energia eta itsas uhinen energia) eta azkenik biozientzia eta osasuna (giza osasun zerbitzuak). Horrez gain, badira beste ardatzak zeinetan eskarmentua dugun: elikagaien industria, turismo jasangarria (espainiar modeloarekin alderatuz) eta *smart city*-ak. Gure ehun ekoizlea %90ean txikia edo ertaina da eta, horregatik, nazioartean lehiakorrak izateko aliantzak behar ditugu (eta ez nabil fusioez). Horregatik garrantzitsua da esandako ardatzak identifikatzeaz gain, aliantzak sortzea nazioarteko merkatuetan lehiatzeko.

**f) Azken aldiotan, erabakitze zentroak joan egin zaizkigu Euskaditik: ITP, Gamesa, Ticketbis, Arcelor Mittal, Euskaltelen kapitalaren parte bat saldu egin zen (prentsa ekonomikoa absorbitu egingo dutelakoan dago)... Nola ikusten duzu inbertsio fondo bat izatea Euskadik, *start up* eta enpresa estrategikoen kapitalean sartu eta erosle potentzial baten aurrean, blokeo gutxiengo bat izatea enpresa hori Euskadin bertan geratzeko? Horretarako fondo honek kapitalean parte hartu beharko luke (*capital riesgo* deitzen dena) eta ez mailegu emaile moduan.**



**Yo como nacionalista vasco soy vasco y solo vasco y tengo mi ideología, y eso no me impide negociar la agenda vasca con el PP, el PSOE, Podemos o IU**

Bietariko instrumentuetan pentsatzen gaude, bai maileguen bitartez zein *capital riesgo* bitartez. Izan ere, La Naval enpresaren egoera kontutan izanda, pentsatzen gaude akziodunen artean sartzea, ikusten baitugu kudeaketa organoan aldaketak baleude enpresak etorkizuna lukeela. Dagoenari eustea da gure erronka handiena, ez daitela suntsitu alegia. Baina hasieran zenionaren harira, mingostasunez ikusi genuen nola SENER-ek ITP enpresan zuen partaidetza ROLLS ROYCE-i saldu zion. Mingarria izan zen, bere jatorrian enpresan partaidetza bat genuelako eta SENER-ek ez zigulako, begiruneagatik balitz ere, ezertxo ere esan. Hala ere, Jaurlaritzaren helburua ez da berez enpresa proiektu batetan egotea, baizik eta berorri bere biziaren hasieran laguntzea, gero diru hori atera eta beste enpresa batetan sartu ahal izateko. Gu ez gara enpresariak, baina hori argi edukita ere, gure helburua da batetik egoera txarrean dauden enpresei eusten laguntzea eta bestetik sektore berrietan enpresak sortzen laguntzea, *seed capital* finantzazioa eskaintzea alegia. Bestalde, uste dut, nahiz eta kapitalean parte hartu ez, politikoki ere lan handia egin dugula Euskaltel, Gamesa, Sidenor edota Arcelor Mittalekin.

## 2. Concierto económico, bilateralidad y nuevo status

**g) En línea con las declaraciones de Pedro Luis Uriarte donde señala que "los vascos no saben defender el Concierto", ¿por qué no está incluida la asignatura de Concierto Económico en el currículum vasco? ¿Antes de que dejes de ser Lehendakari vas a aprobar medidas para incluir el conocimiento del Concierto en la educación preuniversitaria y universitaria?**

Sí. Soy un firme defensor de la importancia del Concierto Económico. En su momento desde la Diputación Foral de Bizakaia se elaboró un proyecto llamado AD CONCORDIAM para la divulgación del Concierto. Estuvo bien pero necesitamos que esta sea una asignatura en el sistema educativo vasco para que, cuando hablemos de nuestra identidad diferenciada, sepamos sobre qué base lo hacemos. Debemos saber cuáles son las herramientas que nos hacen diferentes, qué hace a nuestro autogobierno diferente. A veces se mezcla la situación del partido gobernante con los acuerdos entre instituciones. El último acuerdo sobre el cupo en sí es bueno, y por eso negociamos lo mismo con unos y con otros. Yo como nacio-

nalista vasco soy vasco y solo vasco y tengo mi ideología, y eso no me impide negociar la agenda vasca con el PP, el PSOE, Podemos o IU. La cosa es que más allá de Miranda de Ebro, yo tengo que negociar siempre la agenda vasca con cualquiera. Con el representante del Gobierno español de turno. Lo que hemos negociado con el Gobierno se lo expusimos también a Pedro Sánchez. Entonces, el Concierto Económico me parece fundamental en la educación política: qué es el autogobierno singular, en qué se basa, qué engarce tiene con la CE, qué fortalezas tenemos para argumentar ante quienes dicen que es un privilegio… El Concierto Económico no es un derecho en sí; es la consecuencia de un castigo, el vestigio de la abolición de unas libertades mayores. Previamente al propio Concierto existían unos derechos históricos y sobre esto hay que realizar pedagogía.

**h) Bilateralidad. Hay agentes que dicen que no ha existido bilateralidad en las negociaciones porque de no haber tenido el PNV 5 votos determinantes en el Congreso o de no haber aprobado los presupuestos, no hubiese habido pacto sobre el cupo. Decías en una entrevista lo siguiente: "Más allá de esta sensación a mí lo que me satisface es que se nos da la razón en la interpretación de la bilateralidad". ¿Tu cómo lo ves?**

Puede dar la impresión de que el acuerdo se ha podido dar como consecuencia de las necesidades del Gobierno español. Pero no es así. Nosotros hemos conseguido que se reconozca tanto el fuero como el huevo. Es decir, que pudiendo haber aceptado solucionar el conflicto de las cantidades debidas por cupo con otras alternativas menos ajustadas al fuero, pero con el mismo huevo, hemos puesto el derecho y la bilateralidad por delante. El acuerdo sobre el cupo era la condición *sine qua non* para posteriormente llegar un acuerdo que a su vez recogiera la agenda vasca. Por lo tanto, el Estado ha reconocido la bilateralidad y se ha sentado en la mesa con el Gobierno vasco de tú a tú. La negociación política de la agenda vasca y los presupuestos del Estado se ha dado posteriormente, como consecuencia del reconocimiento anterior. De hecho, el grupo que ha negociado el cupo llevaba trabajando desde el mes de enero, cuando todavía no se hablaba de los presupuestos del Estado. Por lo tanto, hablamos de bilateralidad porque el Estado no ha hecho una concesión graciosa de sacar del bolsillo un dinero que nosotros pedíamos caprichosamente (1.400 millones), sino que ha cumplido con sus obligaciones, que son nuestros derechos. Eso es el cumplimiento de la bilateralidad.

**La dependencia se ha originado por la manera de aplicar el Estatuto que han tenido los sucesivos Gobiernos españoles**

**Quienes somos naciones sin Estado que aspiramos a tener nuestro propio Estado, debemos saber que esto es una carrera de largo recorrido**

**i) En el nuevo contexto de acuerdo, ¿cómo se explica el recurso planteado por el Gobierno a la Ley de Abusos Policiales?**

Esto obedece al juego político en el que cada uno juega sus cartas, de cara a su público. Pero yo tengo esperanzas de llegar a un acuerdo en este asunto que no impida la aplicación del contenido fundamental de la Ley.

**j) En cuanto a los incumplimientos en materia Estatutaria (transferencias) por parte del Gobierno español, ¿ha podido haber algún avance?**

Sí. Yo mismo he trasladado al Presidente del Gobierno que nosotros tenemos previsto en el acuerdo de coalición y en nuestro programa de gobierno el desarrollo estatutario en el que hemos priorizado la transferencia de dos competencias: centros penitenciarios y gestión del régimen de la seguridad social. Por lo tanto, el Gobierno español sabe que en la convivencia político-institucional durante la vigencia de este Gobierno van a existir esas exigencias.

**k) Según nos contaba el Lehendakari Ardanza, Txiki Benegas (PSOE) le dijo lo siguiente sobre el Estatuto: "nunca habrá un cumplimiento íntegro del Estatuto salvo que el nacionalismo renuncie a sus aspiraciones independentistas, pues de esta forma nos aseguramos de teneros entretenidos en la reivindicación de tal o cual competencia". Sabiendo esto y, tras comprobarlo durante más de 35 años de incumplimientos, ¿podemos seguir perpetuando el sistema sabiendo lo que opina y hace la contraparte? ¿Entonces, tiene sentido aprobar un nuevo estatuto de autonomía que nos eternice esta situación de dependencia sobre la situación de apuro de un gobierno de turno?**

La dependencia se ha originado por la manera de aplicar el Estatuto que han tenido los sucesivos Gobiernos españoles. Por eso cuando hablo de constitución foral o nación foral, lo hago para entroncar nuestra raíz histórica con la relación de bilateralidad

en un Estado complejo. Llevo años diciendo a los Presidentes del Gobierno que el sistema o modelo político autonómico ya no es sostenible. Es necesario modificar el modelo. Y si el Estado no es capaz de cumplir con una Ley Orgánica (Estatuto de Autonomía) por decisiones arbitrarias, ahí es donde puede tener cabida una reforma del modelo de Estado en el que pasemos del concierto económico al concierto político, recuperando instituciones como el pase foral. El pase foral, en su sentido positivo, quiere decir que mientras no nos pongamos de acuerdo ambos Gobiernos, no se va a cumplir la ley en cuestión, porque estamos obligados a entendernos. Exactamente igual que con el cupo. Hasta que no haya acuerdo, no entra en vigor.

**l) En cualquier caso, con este sistema podría ocurrir al igual que con el Concierto Económico, que el Estado ni siquiera se sentara a negociar, imponiendo su postura y perpetuando en el tiempo el hecho antiforal. ¿No lo crees?**

Así es. Por eso estoy hablando de un sistema con garantías. Es decir, además de un sistema de bilateralidad, hablamos de un sistema cuya aplicabilidad quede garantizada sin estar al albur de interpretaciones, ni siquiera del Tribunal Constitucional. Estaríamos hablando de una comisión de arbitraje para garantizar la aplicación del sistema, sin depender de la interpretación que en cada momento realice arbitrariamente una de las partes. De esta manera, evitaríamos que el Gobierno del Estado pudiera imponerse.

**m) Si nosotros conseguimos un pacto en Euskadi (en el Parlamento vasco) mayoritario y plural para llevar a cabo este proyecto político, cumplimos con los trámites legales y democráticos y el Estado nos da un portazo (es decir, caminamos el mismo sendero que transitaron los catalanes para aprobar el "Estatut"), ¿Cuál es el plan b? ¿Es legítima la unilateralidad?**

¿Si falla todo eso? Sí. Pero la unilateralidad puede ser inviable por nuestro contexto europeo. Es decir, vivimos en la Unión Europea y no podemos arriesgarnos a un portazo en Bruselas. Esta cuestión se la he planteado a Artur Mas y Nicola Sturgeon, proponiéndoles que los que somos naciones sin Estado en la Unión Europea constituyamos un grupo que aborde una reflexión compartida hasta provocar en el seno de la Unión un sistema doble: el de los Estados miembros y el de las naciones sin Estado.

**n) ¿Y cómo puede ser que Europa haya aceptado la independencia y la integración en la Unión Europea de países que se independizaron mediante guerras (mediante el uso de la violencia) o de aquellos que declararon su independencia unilateralmente y en un parlamento, y no se acepten a los países que ejercitan el derecho a decidir democrática y pacíficamente?**

No tiene sentido, pero es así. Por eso digo que hay que obrar con inteligencia y, quienes somos naciones sin Estado que aspiramos a tener nuestro propio Estado, debemos saber que esto es una carrera de largo recorrido. En esa carrera tendremos frustraciones. Por ejemplo, en la reunión con Moscovici y Juncker les planteé otra Europa más social, construida de abajo arriba, les hablé de la agenda vasca y las particularidades de la nación vasca. En fin, debemos intentar cambiar Europa para cambiar la situación de los países que la integran. Pero además, no se trata únicamente de que venga otra generación política que nos pueda reconocer políticamente, sino que nuestras siguientes generaciones tengan una base sobre la que seguir trabajando. Por eso decía al comienzo de la entrevista que somos eslabones de una misma cadena.

**En el tema de la memoria trata de crear un consenso honesto que, como mínimo, comience en el golpe de estado fascista y la guerra civil, que es anterior a la creación de ETA**

## 3. Memoria, Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo y Ley de abusos policiales

**o) En cuanto a la Memoria, hemos leído una entrevista a Raúl López Romo sobre el Museo de Víctimas del Terrorismo. Él decía que el modelo de ese Museo va a ser el modelo del Holocausto, y no el de Belfast, el Museo sobre el proceso del Ulster. Defiende el modelo del Holocausto porque según él, aquí no existió un conflicto, ni diferentes tipos de violencia, ni espiral de violencia, ni otros agentes que violaron derechos humanos.**

Literalmente, dice que "aquí existe la democracia y la libertad, y ETA como agente que surgió para combatirla". ¿Qué va a hacer el Gobierno vasco ante este tipo de adoctrinamientos o relatos inciertos que pretenden dividir a la sociedad vasca e imponerle una visión "de parte"?

Esta es una cuestión delicada y una tarea difícil, por eso tenemos una mayor necesidad de hablar claro y de forma honesta. Lo que planteo es que, además de alinearnos en la condena del franquismo, en el rechazo de cualquier tipo de exaltación del golpe de estado o de la represión de la dictadura amparándonos en la Ley de Memoria Histórica, también debemos hablar sobre ETA, el Batallón Vasco-Español, los GAL, la violencia estatal y realizar también una autocrítica sobre qué hemos hecho con las víctimas. Partiendo siempre de un inicio que es la reflexión sobre las consecuencias del golpe de estado contra la II República que dio origen a la guerra civil. En cualquier caso, es una cuestión delicada. En tal sentido, recientemente estuve con

Sergio Jaramillo y le comenté que quizás deberíamos encargar a un *pull* de institutos académicos internacionales que trabajen en la construcción de un relato. Con esto se trataría de evitar una disputa de relatos y tratar de llegar a un consenso plural. En el tema de la memoria trata de crear un consenso honesto que, como mínimo, comience en el golpe de estado fascista y la guerra civil, que es anterior a la creación de ETA.

**p) ¿Se le va a pedir autocrítica al Estado?**

Claro. Tenemos un informe de torturas encargado por el Gobierno vasco que incluso va a hacer una revisión en el ejercicio del pasado sobre la Ertzaintza, y que va a demostrar, por cierto, que nosotros siempre hemos sido un Gobierno vasco democrático y que con orgullo decimos que no tenemos miedo a una revisión crítica del pasado. Eso mismo debe trasladarse al Gobierno español, si es la Policía Nacional, la Guardia Civil o el ejército español quienes se ven afectados por ese informe de torturas.

Por cierto, a cuenta del 80 aniversario del bombardeo de Gernika, me comuniqué con Rajoy para instarle a realizar un gesto. No le pedí ni siquiera el perdón por parte del Gobierno español, pero sí un gesto de un Gobierno que ha nacido de una transición y no de una ruptura respecto del régimen fascista. Simplemente un gesto para con las víctimas del bombardeo. Rajoy me contestó desde Uruguay diciéndome que le pillaba tarde pero que entendía la situación y que él estaría dispuesto a analizar para el año que viene poder realizar ese gesto por parte del Estado español. Por eso digo que este gesto de reconocimiento es necesario.

**Ez dugu lanpostu publikoetan euskera eskakizun maila malgutu edo beheratuko**

## 4. Euskara eta erabilpen praktikoa

**q) Azkeneko Ertzaintzaren oposaketetan eskainitako lanpostuetatik (250) soilik 125ek dute euskarazko perfil eskaera (B2 maila soilik). Hau da, lizentziatuko diren ehuneko 50%ak ezin izango ditu euskal hiztunak artatu eta euren hizkuntzan zerbitzua eman, eskubideak urratuz. Uste duzu, Bingen Zupiriak esan duen bezala, euskara perfilak beherantz zuzentzea dela euskarak behar duen bultzada?**

Ez, noski ezetz. Uste dut hori gaizki esandako esaldi bat izan zela, sailburuak esan zidan bezala. Berak idatzi egin zidan esanez berak gaizki esandako esaldi bat zela. Ez da gure asmoa hizkuntz maila malgutu edo beheratzea.

**r) ¿Nola ikusten duzu euskararen presentzia kaleko esparruan?**

Niretzat mingarria eta onartzeko zaila da kalean ikusten diren deitura, kartel eta errotulu guztiak gaztelaniaz egotea. Horrek baldintzatu egiten gaitu nahitaez, zein herritan bizi garen identifikatzeko. Kalean ematen dugun irudiagatik hasi behar gara. Kalean euskaraz egiteaz aparte, euskararen erabilera islatuta ikusi behar da kaleetako kartel eta errotuluetan. Horrek lagundu egin beharko liguke esatera "beste toki batean nago" edo "beste nortasun bat daukat". Nortasun hori garatu egin behar dut, zeren eta ez da bakarrik teorikoki dakidana, baizik eta praktikan jarri behar dudala. Gaur egun euskal biztanleriaren %36a da elebiduna, eta euskarak izan zuen hilzoriko egoera kontutan izanda, goraipatzekoa da egin dugun lana. Baina arestian esandakoak kezkatu egiten nau eta uste dut ez dugula asmatu horretan. Esleipen publikoetan, eskaintza publikoetan, maila akademikoan, enpresa munduan… euskararen erabilpena gauzatu egin behar da.

Eskerrik asko Lehendakari Jauna,

**Alexander Zapirain**
**Mikel Bizkaia**

# Kontraesanak nahi bezala

Liskar politiko handiek beti ekarri izan dute jakintasun falta ikaragarri bat historian zehar eta Estatu espainolean, non arazo politikoak erarik oldarkorrenean izan diren gaindituak, egoera berdina da. Gaur egun, bortizkeri hori kloaka bilakatu da, eta antzinako armada edo jeneralak auzitegi.

Kloaka horien helburu nagusia kontraesanen sorrera dela esan genezake, Estatu espainiarra eroso sentitzen delarik kontraesan horietan. Legezkotasuna era abstraktu batean erabiliz, kontzeptu taktiko bezala, eta hau zuzenean demokraziarekin lotu nahirik. Horrela estatuko presidente-ordeak esan zuen *"si es legal es democrático"*. Esaldi erabat arriskutsua, historian zehar baditugu hainbat adibide, izan ere, esan genezake AEB-tan arrazagatiko segregazioa legezkoa zela, edo heriotza zigorra ere hainbat estatutan legezkoa da, baina nekez esan dezakegu demokratikoak direnik bi egoera hauek.

Kontraesan horiek azaleratu egiten dira kasu askotan. Estatuak 1979tik darama lege organiko bat bete gabe, Gernikako Estatutua alegia. Lege organiko batek eskatzen dituen gehiengo kualifikatuak nahiko ez balira, gainera erreferendum bidez onartua izan zena. Beste adibide bat Alfonso Guerraren esaldi famatua dugu Kataluniako autonomi estatutuaren inguruan "nos lo hemos cepillado" barre artean esanez, ahaztu gabe Zapatero presidenteak Estatutu hori babesteko konpromisoa hartu zuela. Ikusita beraz, bi kasu hauek euskal eta katalan legebiltzarretan, ondoren Espainako gorteetan eta erreferendum bidez onartuak izan zirela, esan genezake egungo legegintzaren zutabeetakoa den "kontratu sozial" baten aurrean aurkitzen garela.

Aldeetako batek bete egin ez duen kontratu baten aurrean kokatzen gara, hau da, bere balioa erabat galdu egin duen kontratu baten aurrean. ¿Zerk ez du baimentzen beraz Euskadi edo Catalunyak nahi dituzten erabakiak hartzea beraien legebiltzarretan? Legezkotasunak zilegitasun osoa galdu du Gobernu espainiar desberdinen eskutik, zeintzuek erabateko gehiengoa izan dutenean, autonomiez barre egin eta dekretu legegileen bitartez nahierara legeztatu izan duten; betiere ikuspegi zentralista batetik noski.

Mas, Homs, Ortega, Rigau eta Forcadellen delitu egotzeak, legezkotasuna ez dutela errespetatu leporatuz, benetako justizia sistema batean, lehen aipaturiko lege organiko hura errespetatu ez duten guztiei delituak egozteko aukera zabaldu beharko luke, 38 urtez legezkotasun printzipioa ez errespetatzeagatik. Badakigu hau ez dela inoiz gertatuko, izan ere, Estatuak bertan kontraesan bat sortu egin du, bere alde jarri izan duena, beraien erregimen politikoa mantendu ahal izateko.

Nahiz eta Kataluniak akordiorako premia agerrarazi duen, Estatuak ezer ez egitea erabaki du, korrupzio kasu guztietan baliagarri izan zaion estrategia berdina jarraituz. Gaur egun, bere erabakia era demokratikoan hartu nahi duen herria, herri bortitz edo liskartsu bezala erakutsi nahi da, zentzurik gabeko saiakera batean. Geldirik dagoen egoera honen aurrean, non legeak jada zentzua galdu duen, Kataluniako legebiltzarrak aurrera egitea erabaki du; izan ere, Donostian Mas presidenteak esan zuen bezala, "no hay unilateralidad si la otra parte no se sienta a negociar". Hala ere, berriz ere entzun beharko dugu "si no es legal no es democrático" eta honi gehitu beharko genioke "salvo que lleve el sello de Moncloa".

**Asier Areitio**

Sabin Etxea – 2016.12.27

# Pedro Luis Uriarterekin Elkarrizketa



Pedro Luis Uriarterekin buruturiko elkarrizketa hau, 2016ko abenduaren 27an egin zen Sabin Etxean. Pedro Luis Uriarte, Francoren diktaduraren ondoren osatu zen lehen Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza sailburua izan zen (1980-1984). Besteak beste, 1981eko Kontzertu Ekonomikoaren legearen negoziaketak aurrera eramatea egokitu zitzaion. Elkarrizketak, gure autogobernuaren ardatz nagusienetarikoa den Kontzertu Ekonomikoaren inguruan jardungo du.

## 1. Las negociaciones de la Ley del Concierto Económico de 1981

**a) En 1980, usted fue nombrado Consejero de Economía y Hacienda del primer Gobierno Vasco que se formó tras la aprobación del Estatuto de Gernika de 1979. ¿Cuáles fueron sus competencias como Consejero?**

Las competencias se centraron en los campos de la economía, finanzas, hacienda y administración. El Gobierno Vasco partía de cero para buscar soluciones al estado de prerevolución sociopolítica y de gravísima crisis económica que se vivía en aquel momento. El primer Gobierno Vasco tuvo que afrontar una tarea titánica de reconstrucción del país. No había nada: ni mesas, ni sillas, ni despachos; nada. Tuvimos que crear y asentar las bases de la administración vasca. En mi caso, uno de mis principales cometidos fue preparar y liderar las negociaciones del Concierto Económico con el Estado.

**b) ¿Cómo articularon y en base a qué conocimientos previos proyectaron las negociaciones del Concierto Económico que se desarrollaron durante el año 1980?**

Yo tenía 37 años y nula experiencia política. Cuando comencé mi andadura como Consejero desconocía los pormenores del Concierto Económico. Se formó una comisión multidisciplinar muy potente, donde cooperaron tanto figuras de orden político como técnico. Entre otros, el grupo de trabajo estuvo conformado por personajes como José Ramón López Larrinaga, Josu Elorriaga, José Maria Macua, Juan María Ollora, Victoriano Menchacatorre, Javier Aizarna o Emilio Guevara.

Partimos de la premisa de que tras la formación del nuevo Gobierno Vasco, las negociaciones previas con el Consejo General Vasco no eran vinculantes. Por lo tanto, las negociaciones empezaron prácticamente de cero en mayo de 1980 y se extendieron durante todo el año. Muchos de los temas a tratar se abordaron al paso, según fueron avanzando las negociaciones.

**c) Desde EGI, consideramos que la aprobación inicial del Concierto Económico en 1878 – dos años después de la abolición foral– fue una consecuencia de la pérdida de unos derechos más amplios del pueblo vasco. ¿Ustedes interpretaban este hecho del mismo modo?**

Sin duda. El Concierto Económico se impuso “manu militari”. Pero negociación tras negociación se logró consolidar un modelo de autogobierno fiscal y financiero de primer orden y diferenciado. Nuestra aspiración era lograr un modelo de autogobierno fiscal y financiero lo más amplio posible. Y lo conseguimos.

**d) ¿Cuál era la opinión generalizada sobre el Concierto Económico de los principales interlocutores del Gobierno español?**

La recuperación del Concierto Económico para los tres Territorios Históricos se acordó con anterioridad, durante las negociaciones del Estatuto de Autonomía. En las negociaciones del año 1980 se discutió esencialmente sobre el contenido y alcance del Concierto, no sobre su vigencia o legitimidad. El por entonces Ministro de Hacienda, Jaime García Añoveros, de origen navarro, era un gran político y profesional que conocía de cerca los sistemas de Convenio y Concierto. También cabría destacar la figura de Rodolfo Martín Villa, Ministro de Administración Territorial, con el que se acordaron los asuntos referentes a las competencias de la financiación municipal vasca, que quedaron también integradas dentro del Concierto. Aunque fue una negociación durísima y llena de aristas, los interlocutores del Estado mostraron un talante dialogante.

**e) ¿Cuáles fueron los puntos en los que "se cedió" en aras a lograr un acuerdo?**

Más que ceder, se convergió. El Estado aceptó buena parte de nuestros planteamientos: entre otros, ejercer una autonomía normativa, la aprobación de una sola Ley de Concierto y Cupo o la tramitación vía Ley de artículo único. Asimismo, nosotros también aceptamos planteamientos por parte del Estado que nos parecían coherentes. Por ejemplo, las limitaciones normativas en aras a garantizar una competencia leal dentro del mercado interno, o la restricción para aprobar amnistías fiscales. El Estado quería evitar que Euskadi pudiera convertirse en un paraíso fiscal. Realmente, nosotros en ningún momento pensamos en dicha posibilidad.

**f) Aunque el Concierto Económico fue derogado en Bizkaia y Gipuzkoa el año 1937, subsistió en Álava durante todo el franquismo. Es más, en el año 1976 se aprobó una renovación del cupo alavés para 25 años. ¿La vigencia del Concierto Económico en Álava fue relevante en las negociaciones del año 1980? ¿Actuó como garantía para la recuperación del Concierto en Bizkaia y Gipuzkoa?**

El Estatuto de Autonomía señalaba que el "Concierto se inspirará en el contenido material del vigente Concierto Económico con la provincia de Álava, sin que suponga detrimento alguno para la provincia". El Concierto con Álava delimitaba el suelo del sistema a negociar. Realmente, lo más sencillo hubiera sido trasladar el modelo alavés a Bizkaia y Gipuzkoa.

Pero apostamos por un nuevo modelo, el actual, en el que contribuimos por las competencias no asumidas que realiza el Estado. Suponía asumir el riesgo de recaudación, porque el cupo se fijaba con referencia al Presupuesto del Estado. El Diputado General de Álava fue reticente en un principio. El propio Ministro de Hacienda, me dijo que "no fuera loco". Desde su perspectiva, el modelo de cupo podía ser catastrófico para Euskadi, más teniendo en cuenta el contexto de crisis económica galopante que sufríamos. Yo tenía claro que del mismo modo que un riesgo, también era una oportunidad. La evolución y los resultados que ha ofrecido el sistema concertado desde 1981 y hasta la actualidad son una evidencia del acierto que tuvimos al apostar por la actualización del sistema. Asimismo, el modelo de 1981 fue mucho mejor para Álava que el de 1976.

**g) ¿Pudo la presión de ETA ejercer de palanca para que el Gobierno español entrara en el acuerdo?**

Una de las leyendas urbanas que todavía persiguen al Concierto Económico es que se logró por la presión que ejercía ETA. Esta es una calumnia absoluta. Primeramente, el Concierto Económico tiene su origen en el siglo XIX, muchísimo antes de la aparición de ETA. En segundo lugar, el Concierto Económico no entraba dentro de la estrategia de ETA. Al contrario. ETA quería evitar a toda costa que se consolidara un sistema de autogobierno que propiciara una estabilidad a Euskadi. En contraposición, el Gobierno vasco y el Gobierno de Suárez coincidieron en la necesidad de dar pasos en pro de estabilizar la situación sociopolítica del País Vasco. El Estatuto de Autonomía y el Concierto Económico tuvieron un rol estabilizador. Es decir, lo contrario de lo que necesitaba ETA para que sus planteamientos triunfaran.

> **Quienes critican el sistema concertado argumentando que ofrece al País Vasco una capacidad de gasto por habitante muy elevada, tienen una forma muy sencilla para disminuirla: cumplan en su totalidad el Estatuto de Gernika y transfieran la gestión de la Seguridad Social**

## 2. El Concierto Económico desde la perspectiva financiera

**h) ¿Cuándo se negoció, el sistema concertado era beneficioso para el País Vasco?**

Sí. Cuando se negoció el Concierto de 1981, la inversión estatal en Euskadi no alcanzaba el 6,24% de los presupuestos generales. Por lo tanto, gracias a la vigencia del Concierto Económico, la diferencia entre el 6,24% y el gasto efectivo que realizaba el Estado quedó en manos de las instituciones vascas para gastarlo como considerasen conveniente.

**i) ¿Eso quiere decir que el Concierto fue un "chollo"?**

No. Primeramente, los resultados del sistema concertado están supeditados a una buena gestión. Por ejemplo, una gestión más eficiente permite incrementar la capacidad financiera de las administracio-



nes vascas. A la inversa, una mala gestión repercute directamente en la capacidad de gasto de las instituciones vascas. El sistema concertado conlleva riesgos. Es un sistema de riesgo unilateral. Además, hay que valorar el Estatuto en su totalidad. No se trata de elegir lo que conviene, sino de completarlo al 100%.

En algunas competencias asumidas, el País Vasco ha salido beneficiado. Si el gasto efectivo del Estado antes de la transferencia de una competencia era menor del 6,24%, el saldo es favorable al País Vasco. De igual manera, también ocurre a la inversa. El País Vasco ha asumido transferencias que han sido deficitarias dado que antes el Estado gastaba más del 6,24% de su presupuesto aquí.

**j) ¿Este podría ser el caso de la hipotética transferencia de la Seguridad Social que contempla el Estatuto de Gernika pero que ha sido sistemáticamente denegada por el Estado?**

Sí. Si en este momento en el que todavía no se han superado las consecuencias de la crisis se transfiriera la gestión de la Seguridad Social al País Vasco, conllevaría una pérdida significativa para las arcas del Gobierno Vasco. Es decir, habría que financiarlo por otros medios.

**k) ¿Si dicha transferencia resultaría deficitaria para Euskadi, ¿por qué la solicitamos?**

Porque esto no es un negocio. Aquí no se trata de ganar sino de hacer País. Por eso, hay que reclamar el cumplimiento íntegro del Estatuto. A aquellos que critican el sistema concertado argumentando que ofrece al País Vasco una capacidad de gasto por habitante muy elevada, tienen una forma muy sencilla para disminuirla: cumplan en su totalidad el Estatuto de Gernika y transfieran la gestión de la Seguridad Social.

**l) Durante lo años de la crisis, se han escuchado voces acusando a Euskadi de no participar en el problema del déficit del Estado. ¿Es cierto que Euskadi no participa sobre el déficit del Estado?**

No. El déficit del Estado se ha financiado a través de las emisiones de deuda. Euskadi recibe el 6,24% de los ingresos por déficit público y paga el 6,24% de las amortizaciones y los intereses de la deuda que se ha emitido para financiarla. Es decir, compensa los ingresos por déficit del Estado con los gastos de amortización, y paga el 6,24% de los intereses de la deuda.

**m) ¿Es aplicable el Concierto Económico a todas las Comunidad autónomas?**

Técnicamente sí. Pero como hay disparidades de renta entre Comunidades, habría que establecer un mecanismo de transferencias para equilibrar las desigualdades interterritoriales. Éste mecanismo tendría que ser totalmente transparente, estar exhaustivamente fiscalizado y basarse en un modelo de transferencias condicionadas. Además, tendría que respetar el principio de ordinalidad.

## 3. Otras cuestiones de actualidad en torno al Concierto Económico

**n) Educación y divulgación. Desde EGI consideramos que la labor divulgadora de las administraciones vascas en materia de Concierto Económico es muy deficiente. Siendo como es uno de los pilares nucleares del autogobierno vasco, creemos es muy grave el desconocimiento general que existe en la sociedad en torno a este tema. Entre otros, planteamos que su estudio debería estar incluido en el currículum vasco. ¿Por qué no se han dado pasos en este sentido? ¿Por qué no se dan? ¿Cuál sería su propuesta al respecto?**

No tengo ni idea. Yo dejé el Gobierno Vasco en 1984. El estudio del Concierto Económico debería incluirse dentro del sistema educativo vasco. No es admisible que una institución que lleva vigente desde 1878 sea desconocida por una parte significativa de la población vasca. Entre los muchos frentes que debe abarcar la labor pedagógica, recomiendo que se creen cátedras en este tema, que se apoyen a las instituciones que ayudan a su difusión y propagación como Ad Concordiam o la FEDHAV, que se potencien doctorados o que se hagan campañas de comunicación en la sociedad vasca y española.

**o) ¿El Concierto Económico es una meta o un paso intermedio?**

Cuando Sabino Arana fundó el PNV, el Partido estaba en contra del Concierto Económico. Reclamaba la reintegración foral plena. Sin embargo, con el paso de los años, el PNV entendió que el Concierto podía ser un instrumento útil para la construcción de Euskadi. Hoy, muchos años después, para cualquier independentista el Concierto Económico es un "must", algo obligatorio de defender. Crea estructuras de Estado: reconoce soberanía en un campo químicamente puro estatal como es el mantener, establecer y regular el régimen tributario. Bien gestionado, articula una situación favorable que te permite aspirar a cuotas mayores de autogobierno o incluso a una muy amplia soberanía en un futuro.

> **El estudio del Concierto Económico debería incluirse dentro del sistema educativo vasco**

> **Para cualquier independentista el Concierto Económico es un "must", algo obligatorio de defender**

El Concierto Económico no impide nada. Todo depende de las concepciones individuales de cada cual. Desde determinados sectores de la política vasca que abogan por mantener la unidad de España, el Concierto Económico se valora positivamente como vínculo entre el País Vasco y el Estado. En cambio, desde ciertas posiciones del nacionalismo vasco, se defiende como una herramienta para crear una relación bilateral con el Estado, basada en la idea del pacto. Insisto en que el Concierto Económico no impide nada. Es un elemento que posibilita el desarrollo de proyectos políticos diametralmente opuestos. Ha demostrado, gracias a la brillante gestión de las instituciones vascas, que es la columna vertebral sobre la que se asienta la autonomía vasca y un instrumento imprescindible para ofrecer una calidad de vida a la ciudadanía vasca.

**p) ¿Se podría generar una sinergia económico-financiera con la unión voluntaria entre Nafarroa y la CAPV?**

Aunque sea una cuestión política muy complicada, la legislación vigente contempla esta posibilidad. Desde el punto de vista del Convenio y del Concierto no tengo ninguna duda que sería positivo. La unión hace la fuerza. Apoyándose mutuamente se defenderían mejor que yendo cada sistema por su lado. Pero en cualquier caso, hay que respetar la voluntad de los navarros.

Eskerrik asko,

**Mikel Bizkaia**
**Alexander Zapirain**

# Inflazioa eta Milton Friedmanen paradigma aldaketa

"Keynes hil da, Milton Friedman goraipatu dezagun". 1970ko hamarkada. Orduko petrolio-prezioaren krisiaren ondorioz, inflazioa amesgaizto orokor bihurtu zen. Amesgaizto hori, ezaguna zen gainera: Lehenengo Gerrate Mundialaren ostean Alemanian, Austrian eta Errusian inflazioa zela eta langileei egunean hirutan ordaindu behar izaten zitzaien (gosari, bazkari eta afal aurretik) diruak balioa galdu orduko.

Gauzak horrela, Milton Friedman ekonomialari amerikarrak bere inflazioaren jatorriei buruzko teoria eskaini zuen, "Monetarismoa" deiturikoa. Teoria hau ulertu ahal izateko, jakin behar da bere autoreak (i) ukatu egiten zuela keynesianismoaren teoria ekonomikoa eta (ii) uste zuela inflazioa, beti eta soilik, gertaera monetario bat zela. Hain zuzen ere, uste zuen inflazioa diru larregiaren ondorio zuzena zela eta hori gobernuek ekonomian zuten interbentzio espantsionistak sortzen zuela. Ezaguna da bere esaldi hau: "inflazioa Washington DCn sortzen da".

## Zergatik zioen hori ordea?

Lehenik eta behin, Milton Friedmanek zioen gobernuek dirua sortzen dutela gobernu propioaren gastuak ordaintzeko. Gizarteak ordea, gastu publikoa eskertzen duen arren, ez du zerga igoerarik nahi. Tamalez, ez dago bata bestea gabe egiterik. Gobernuak 450 milioi gastatzen baditu eta soilik 400 bildu, nork ordainduko du hutsunea? Gobernuak jasotzen duena baino gehiago gastatzen badu, hutsunea bete beharko du bai dirua inprimatuz zein maileguan hartuz, zorpetuz alegia. Milton Friedmanen arabera, azken-azkenean hiritarrek ordainduko dute hutsune hori, eta ordain hori "inflazioa" deituriko *zerga* da. Gobernuek dirua inprimatuz inflazioa sortzen dutenetik, diru gehiago biltzen dute proportzionalki. Beraz, inflazioa zeharkako fiskalitatea da eta horregatik esan daiteke, dirua inprimatzea bozkatu gabe zergak igotzeko modua dela.

Bigarrenik, Milton Friedmanek argudiatu zuen inflazioa zorra murrizteko erabiltzen dutela gobernuek. Honen adibide argia Amerikako Estatu Batuetan 1970. hamarkadan aurki genezake. Orduan Gobernuak defizita zuen aurrekontuetan, baina zorra, urtero murriztuz zihoan. Defizit horiek inflazioak finantziatzen zituen.

Hona hemen azalpena: norbaitek Gobernuaren epe luzerako (10 urte) bono bat erosten bazuen 1970. hamarkadan eta berori urte batzuk geroago libratu (kapitalizatu), trukean itzultzen zitzaion diruak askoaz gutxiagoko eroste ahalmena zuen. Inflazioa zela eta, diru berri horrek ondasunak bonoa eskuratu zen momentuarekin konparatuta eroste ahalmen gutxiago zuen. Horrez gain, hiritarrek zergak ordaindu behar zituzten bonoek emandako interesengatik. Hori dela eta, zorra murriztu egiten zuten gobernuek modu esanguratsuan eta diru zaharra errez ordaindu inflazio osteko diruarekin.

Beraz, Monetarismoak ez du onartzen gehiegizko diru kopuruaz gain beste arrazoirik inflazioaren jatorrian. Horregatik, eta adibide bat ematearren, Friedmanek mantendu egin zuen 1970. hamarkadako petrolioaren prezio igoerak ez zuela zerikusirik izan mundu mailako inflazioan. Friedmanek ez zuen onartzen lehengaien prezio igoerak inflazioan efektua izan zitekeenik.

Berak esaten zuen legez, inflazioa gobernuen gastu publikoak eta diru eskaintza eskergak sortzen dute soilik. Horregatik, bere errezeta austeritatea izan zen.

Horrela sortu zen gaur egungo teoria neoliberalen ideia nagusia: austeritatea. Handik etorri ziren gero Chicagoko Eskola, Chileko plangintza ekonomikoa, Margaret Thatcherren politikak, etabar luze bat.

## Baina, egia al da estimulu ekonomikoek eragin okerra dutela ekonomian epe luzera?

Nire ustez ez. Kontutan izan behar dugu Friedman eta Chicagoko Eskola ekonomikoaren Monetarismoa Keynesen teoria interbentzionisten aurkako arkitektura intelektuala izan zela, eta beraz, Keynesen eskaria handitzeko zuzenduta zeuden estimulu errezeten aurkako planteamendua. Horregatik, Monetarismoaren ikuspunturik garrantzitsuena da epe luzean gastu publikoa ez dela medio egokia langabeziari edota hazkunde ekonomikoari irtenbidea emateko. Friedmanek ez zuen gogoko gobernuek estimulu publikoen bitartez egiten zuten interbentzioa, "*merkatua berez erregulatzen baita*". Horregatik zioen gastu publikoa eta diru eskaintza zirela inflazioaren faktore bakarrak eta horregatik proposatu zituen desarautzea eta interbentzioaren murrizketa. Keynesen teoriek ordea, kontrakoa zioten: langabezia eta hazkunde ekonomiko eza, eskari agregatuaren eskasiagatik gertatzen ziren eta, ondorioz, gobernuek hedapen fiskala, diru eskaintza eta interes tasen bitartez ekonomia berpiztu behar zuten.

XXI. mendeko krisiaren ostean, Europar Batasunak eta Europako Banku Zentralak adostutako politikak Friedmanek esandakoaren norabidean joan ziren, austeritatearen bidez ekonomia ahulak estutuz. Ostera, Ameriketako Erreserba Federalak eta Barack Obamak "Quantitative Easing" deituriko hedapen ekonomikoaren programa martxan jarri zuten. Modu honetan, eta hau da nire ikerketaren punturik garrantzitsuena, froga daiteke Milton Friedmanen teoriaren paradigma guztiz aldatu dela. Gastu publikoaren eta diru eskaintzaren igoerak AEBetan ez dute inflazioa igoarazi eta, horrez gain, langabezia murriztu egin da eta interes tasak egonkor mantendu dira. Grafikoetan ikus daitekeen legez, Friedmanen teoria ez de bete.

Lehenengoz, atzeman dezakegu diru eskaintzak 2008tik gora egin duela etengabe hedapen politika ekonomikoak direla eta:




**1. Grafikoa:** Erreserba Federalak sortutako diru kopurua 2004 eta 2016 bitartean.

Argi dagoenez, 2008 aurretik diru eskaintza edo kantitatea iraunkor eta maila baxuetan mantendu zen bitartean, 2009. urtearen hasieran igotzen hasi zen. Izan ere, 5 urtetan diru eskaintza globala lau aldiz biderkatu da. Horrez gain, zorra eta defizitak ere gora egin zuten:



**2. Grafikoa:**
AEBtako Gobernuaren zorpetzea 2004 eta 2016 bitartean.



**3. Grafikoa:**
AEBtako aurrekontuaren defizita 2004 eta 2016 bitartean.

Agerian denez, Gobernuak zorra handitu zuen AEBetako Barne Produktu Gordinaren %100 gaindituz, eta 2009. urtean defizita aurrekontuaren -%10a izatera heldu zen.

Bestalde, sortutako diru kantitate erraldoiak mugimendua izan zedin interes tasak moztu egin ziren ia %0ra arte, diru merke kantitate handiak eskainiz:




**4. Grafikoa:** AEBtako interes tasak 2008 eta 2016 bitartean.

Aurreko elementu guztiak kontutan izanik, Milton Friedmanen teoriaren arabera inflazioak gora egin behar izango zuen modu esanguratsuan (diru eskaintza eskerga + gastu publikoa itzela + defizita + dirua merke = inflazioa). Ordea, ikus dezakegunez formula hau ez da bete. Are gehiago, langabezia murriztu egin da eta, garrantzitsuena dena ikerketa honetarako, inflazioak beherantz egin du eta egonkortu egin da:



**5. Grafikoa:** AEBtako inflazioa 2008 eta 2016 bitartean.



**6. Grafikoa:** AEBtako langabezia tasa 2008 eta 2016 bitartean

Beraz, eta ondorio gisa:

1) AEBetako estimulu ekonomikoan oinarritutako politikek Milton Friedmanen teoriaren kontrako emaitza frogatu dute.

2) Monetarismoaren ikuspuntutik, paradigma aldaketa bat gertatu da eskaintza monetario izugarriak ez duelako inflazioa sortu.

3) Ostera, badaukagu diru eskaintzaren (gastu publikoa eta diru kopurua) inflazioa, prezioen inflazioa sortu gabe. Balizko egitate hau dikotomikoa da Milton Friedmanen ekuazioan. Arestian ikusi dugunez, inflazioak behera egin du %6ko marka gorenetik %1,6ra (pasaden urrian), nahiz eta diru eskaintza %400ean biderkatu den.

Ondorioz, ikus dezakegu inflazioa ez dela beti eta soilik fenomeno monetario bat. Bigarrenik, atzeman genezake gastu publiko produktiboak eragina eta indarra duela atzeraldi ekonomikoan dauden ekonomietan, eskari agregatua bultzatuz. Izan ere, gastu publikoak ekonomian sinergia makroekonomikoak sortzen ditu. Ostera, geldialdian dauden ekonomietan austerita-te politikak ezartzeak, gizartearen sektore ahulenak itotzeaz aparte, efektu kaltegarriak ditu ekonomia estimulatzeko. Beste modu batean esanda: hegaldi batean bagaude eta hegazkinak pisu gehiegi badauka, motorra da botako dugun azken karga (estimuluak motorra izanda). Egun, estimulu politikak eta kolaborazio publiko-pribatuan oinarritutako ekonomiak emaitzak ematen hasiak dira, gure herrian ikus dezakegun legez.

**Gastu publiko-produktiboak estimulu eragina dauka atzeraldian dauden ekonomietan**

## Bibliografia:


- Alesina A, Cohen G, Roubini N. 1991. Macroeconomic policies and elections in OECD democracies.
- Friedman M. 1968. The role of monetary policy. Am. Econ. Rev.
- Grilli V, Masciandaro D, Tabellini G. 1991. Political and monetary institutions and public financial policies in the industrial countries.
  - Hall PA. 1986. Governing the Economy. The Politics of State Intervention in Britain and France.
  - Iversen T, Wren A. 1998. Equality, employment, and budgetary restraint: the trilemma of the service economy.
  - Leube K. 1987. The Essence of Friedman.
- Soskice D, Iversen T. 2000. The non-neutrality of monetary policy with large price or wage setters.
- Svensson LEO. 1997. Inflation forecast targeting: implementing and monitoring inflation targets.
- https://www.federalreserve.gov/econresdata/


**Alexander Zapirain**

Orio – 2017.04.21

# Benito Lertxundirekin Elkarrizketa



**a) Iraganeko musika oraingoa baino hobeagoa zela uste dutenetarikoa zara?**

Ez. Nik uste dut gizakia aurrera doala. Eta berorrekin egiten duen guztia. Esan dezagun Bach, artea da, onenetarikoa. Bachen antzeko zerbait egitea oso zaila da. Bach oso ederra eta zaila izatetik estilo aldetik garaiari oso lotuta dago. Bach entzuten duzu eta garaia markatu egiten du. Gaur egun agian ez luke zentzurik Bach aritu zen moduan aritzea. Eskola aldetik musikari ona izango litzateke, baina ez luke ezer berririk ekarriko, hori egina baitago. Beraz eraberritze bat beti dago gauza guztietan, eta musikan ere berdin gertatzen da. Niri buruz ere, norbaitek pentsa dezake, Benito da Betiko Benito. Baina ni asko aldatu naiz. Eta nik ez dut izan inoiz nire burua aldatzeko asmorik, berez etorri dira aldaketok. Nire barne taupaden urratsen ondorioz eman dira aldaketok. Bizitzan adi egon behar da norbera inspirazioa lortzeko. Inspirazioa, abestiak, etorri egiten zaizkizu. Ez da zerbaiten bila ibili behar; norberaren izateari atentzioa jarri behar zaio eta egin ezkero, ideiek/abestiek topo egiten gaituzte.

**b) J.S. Bach-i buruz hitz egin duzu. Gaur egun zergatik ez dago inor halako musika egiteko gai denik?**

Teknikoki egin daiteke. Estiloak (eskola) ikasi egiten dira eta teknika ikasten duen orok dominatu dezake estiloa. Ezin dena da Bach edo Mozarten irrikak, pentsamenduak edo kontestua errepikatu. Zirrarak askotan misteriotsuak izaten dira, mundu esoterikoaz gabiltza. Zerk mugitzen nau ni? Zerk mugitu zuen Bach? Bere kasuan izan daiteke orduko fede eta izaera erlijioso sutsua izatea. Mundu horretan murgilduta zegoen eta bere musika erlijiotasuna sentiarazteko egina zegoen. Orduan, gaur egun zaila da egoera hori errepikatzea.

**c) Zu musika egiten hasi zinenean ze irrikek inspiratzen zintuzten?**

Ni elizako musikatik netorren. Musika jasoa zen hura. Gero, Orioko gizon baten erlojerian hasi nintzen lanean. Gizon horrek organoa jotzen zuen eta nik begiz jota nuen. Organoa jotzen zuenean bere inguruan egotea gustatzen zitzaidan. Karisma zuen gizon horrek niretzat. Egun batean nire zaletasuna kontutan hartuz laud batekin etorri zitzaidan gizon hura. “Tori, ia zer egiten duken honekin”. Britaniako Popa eta Elvisen kantak nituen gustoko, eta laud horrekin kantak ateratzen hasi nintzen, ondoren letra jarriz. Euskeraz jartzen nizkien letra. Nik ez nuen kontzientziarik orduan euskararen inguruan, euskaldun petoa nintzen arren. Baina euskaraz genuinagoa egiten zitzaidan. Adibidez, Elvisen bertsiotik hurbilago zela sentitzen nuen euskaraz espainolez baino.

**d) Laud horrekin Elvis interpretatzetik nola pasatu zinen musikari izatera?**

Egun baten Zarautzera joan eta gitarra elektriko bat erosi nuen. Erlojerian gitarra jotzen orduak ematen nituen. Hori zen nire inspirazioa, nire gustu musikalak kontutan eukita entzuten nuena neure bizitzara inkorporatu. Horrela, orduko “*La voz de España*” txapelketara presentatu nitzen. Lehenengo froga egin eta gero, hurrengo egunetako aldizkarian jarri zuten nire izena “con la particularidad de que canta en vascuence” zioena. Orduan, Katalunian hasia zen la Nova Cançó mugimendu hori. Aste

santu baten etorri egin ziren katalanok euskaraz kantatzen zuen abeslaririk bazeuden galdezka. Egun batean, erlojerira deitu zidan gizon batek esanez bilera bat egongo zela Kursaleko sotanoetan euskarazko musikari buruz. Mikel Laboa zen. Lehen batzar haietan ez nuen ezer ulertu; han zebilen Raimon kantuan, beste batzuk txalaparta jotzen… Eta nik aldiz, Elvis kantatzen nuen. Pentsatu nuen ez nintzela bueltatuko. Baina bigarren batzar batera joan nintzen. Jende gutxiago zegoen bigarren hartan. Eta batzarrak joan ahala gutxi batzuk geratu ginen. Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Julen Lekuona apaiza eta ni. Orduan hasia zen nigan beste kantari bat. Elvisenganako eta desapegoa hasi zitzaidan eta protesta kanta ezagutzen hasi nintzen (Bob Dylan, Joan Baez, Pete Seeger). Kantu horrek hasi ninduen inspiratzen. Oso garbi hasi nintzen ikusten menderatutako herri galtzaile bateko herritar bat nitzela eta inspirazio edo kontestu horretan jaio zen "Ez dok hamairu".

**e) Zein da zure ustetan belaunaldi horrek gu gazteoi utzi digun jarauntsia?**

*Ez dok hamairu* berez garai bat da. Badago *Ez dok hamairu* aurreko aro bat eta *Ez dok hamairu* ondorengoa. Ispiritu bat izan zen. Baina mugimendu hori deterioratuz joan da kontzientzia faltagatik. Kultura politikoa falta da. Gu herri txiki bat gara, ez potentzia bat. Eta herri txiki batek, munduko beste herriekin aurrez aurre aritzeko, gimnasia behar du. Hau da, muskulatura landu behar du. Kontzientzia landu egin behar da.

**f) Nola atzematen duzu kontzientzia galera hori?**

Adibide konkretu batean? Ba esaterako, gure hedabideak zeharo alienatuta daude. Despistatuak eta eufemismoz betea. Atzo bertan hondartzatik netorrela Euskadi Gaztean "Telecinco"ko programa arrosei buruz ari zien (Bigote Arrocet eta Leticia Savaterri buruz). Horretaz ari ziren. Mimetika horrek ematen du azken finean ispiritua galtzea. Baina klaro, eurek esango dute: "baina euskaraz ari gera eh!". Eta zer? Nik oraintxe daukat abesti bat esku artean esaten duena "euskaraz ere menperatzen da". Euskaradun menperatzaile asko dauzkagu gure herrian. Beti izan ditugu gainera. Gure sukaldetan sartzen dira euskaltzaleak direlako, jatorrak direlako. Eta hori da espainiar abertzaletasunaren egungo lehenengo lerroa. Horrek ez dute Guardia Zibilaren beharrik. Gaur egun hor dago espainiar abertzaletasunaren abangoardia. Eta horrekin badago gainera gaizki espresatzen ditugun hainbat eta hainbat kontzeptu.

**g) Adibidez?**

Gaztelera hitza bera. Hedabideak gaur egun horrela aritzen dira: "liburu bat plazaratu da euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Eta hau da menderatuta gaudenaren seinaleetako bat. Zer esan nahi dute "gazteleraz" esatean, espainola esan beharrean? Estatua hitza erabiltzen denean bezala, Espainia ez erabiltzeko. Zer da Estatua? Espainiako Estatuaren parte gara ala? Ni ez naiz Espainiako Estatuaren parte. Nik badut nire Estatua, aktibatu beharrekoa. Guk ez dugu Estatu bat sortu behar. Euskaldunok eman genion historian gure buruari estruktura politikoa. Eta hori Nafarroa izan zen (Nafarroako Erresuma). Sinbolikoki hartuta ere, hor dago aktibatzeko zain. Ni modu horretan guztiz emantzipatua naiz. Nik badakit Txina eta Espainia distantzia berean jartzen.

> **«Ez dok hamairu» berri bat behar dugu. Kulturatik politikara indarberritze bat behar dugu**
>
> *******
>
> **Euskara, euskotarron hizkuntza nazionala da eta hizkuntza propio hori salbatzeko, boterea behar da**

**h) Musikarekin jarraituz, zein da zure ibilbidean gehien markatu zaituen zure abestia?**

Momentuaren arabera abesti ezberdinek. Egin dudan kanturik politenetarikoa Bizkaia Maite izan zen. Baina kontutan eduki, Bizkaia Maite alboratu egin genuela, bota egin genuela. Binilo hura grabatu genuenean, abesti gehiegi zeuden (horratzak salto egiten zuen) eta abesti bat kendu beharra zegoen. Argitaletxean batu ginen eta Bizkaia Maite alboratzea erabaki genuen. Hain arin, hain errez sortu nuen abesti bat zenez, garrantzirik ez nion eman. Handik denbora batera errekuperatu egin genuen eta nire abestirik politenetarikoa da. Bestalde, atzerrian asko ezagutzen den abestia Nere Herriko Neskatxa da. Oraintxo abeslari irlandar batek grabatu du ingelesez. Azkenik, Baldorba ere kantu garrantzitsua izan da nire bizitzan.

**i) Nola ikusten duzu gaur egungo euskal kulturaren egoera?**

Ba gaur egun ikusten dudana da beste *Ez dok hamairu* berri bat behar dugula. Kulturatik politikara indarberritze bat behar dugu. Mende erdi bat pasata, zikloa pasatu da eta ezin duguna da hanka sartu eta beste mende erdi bat egon sasi konponketa batekin. Zikloak bukatzen direnean, hautsi egin behar da. Aro berri bat behar da Euskal Herrian. Oraindik ere uste dut gehiengo handi batek abertzalea izaten jarraitzen duela Euskal Herrian. Baina ez dakite horretaz pentsatzen, ez dakite horren diskurtsoa egiten. Eta diskurtsoa egiteko pentsamendua behar da lehenengo. Bata bestearen isla baita.

**j) Nola interpretatzen duzu zuk euskal gatazka politikoa? Noiztik uste duzu gatazka hori existitzen dela?**

Ba gatazka dago jendeak esaten duenetik bera ez dela espainola. Eta gatazka dago jendea behartzen dutenetik espainola izatera, borondatez kontra. Hori da gatazka. Behartzen banaute ez naizen gauza bat izatera, zer da ba hori gatazka baino? Azkenean ez da historian aditua izan behar hori ikusteko. Hemen bi inperio ditugu, zeintzuek marra bata egin duten eta zati batzuk bereganatu dituzten, zati bat Espainiak hartuz eta bestea



Frantziak. Eta noski, bietako bakoitzak josi du estruktura eta relato bat hori konbintzentea izateko.

**k) Nola ikusten duzu euskal politikaren egoera?**

Herri honek daukan barniz politikoa, ez da politikoa. Baditugu erakundeak geronek aukeratuak. Baina noren zerbitzuan edo menpe daude? Espainiaren menpe. Pedagogiarik ez da egin. Jendeak uste du demokrazia dela sirimiri antzekoa, denok berdin jotzen gaituena. Baina demokrazia erregelamendu bat da. Eta Espainian erregelamendu hori espainiarrek egina dago. Espainiak araubide hori antolatu du bere mesedetan. Orduan zure arerioaren diseinu horretan parte hartzen baduzu borondatez, legitimatu egiten duzu. Ez duzu indarrik jada ezer erreibindikatzeko. Imaginatu futbol partidu bat jokatuko dugula, eta berori Madrilen jokatuko dela. Gainera arauak espainolek jartzen dituzte. Baita epailea eta publikoa ere. Horrez gain, zure golek ez dute balio; eurenak balio dute soilik. Eta zuk, hala ere, esaten duzu jokatu egin nahi duzula. Horrek esan nahi du ez duzula ezer ulertu. Ba politikan ere bardin gertatzen da. Bestearen erregelamendua onartu ezkero ez daukazu golik sartzerik. Jokatzera behartzen baldin banaute, ez daukat beste erremediorik. Baina borondatez jokatzea? Bestalde, sakonean egon daitekeen abertzaletasun hori espresatzen da Gure Esku Dago eta halako erakundeen bitartez. Gure esku badago, zergatik eskatzen diogu eskubidea beste norbaiti? Dena da beraz sasi-pentsamendu hori: pentsatzen dugu egun baten bozkatu eta Estatu bat bihurtuko garela. Eta hori ez da egia ze Espainiako "demokraziak" hori debekatu egiten du. Espainiako demokrazia ez da askatasunaren ataria. Gauza asko debekatu egiten ditu. Guk gure demokrazia propioa behar dugu eta horretarako boterea behar dugu.

**l) Demokrazia zer da beraz zuretzat?**

Erregimen politiko bat. Beti esan ohi da, sistema txarrenetan hoberena dela. Baina jakin behar dena da demokrazia norena den. Nork ezarri duen eta zertarako. Euskaldunok burujabe bagina, gure Konstituzioa egingo genuke. Eta Konstituzio hori izango litzateke gure sistema. Baina jokoa gurea izango litzateke. Askotan entzuten dut, "demokrazian gaude". Eta ez. "Espainiako demokrazian gaude". Eta Iparraldekoak Frantziako demokrazian. Menpean, morroitzan. Zergatik? Subjektu politiko izan beharrean objektu politikoa garelako. Gure erakundeak guk aukeratu ditugun arren Espainiaren menpe daude.

**m) Espainian beraz demokrazia dago?**

Espainiarrentzako. Hemen pentsatzen da gu hara joanda gauzak aldatuko ditugula baina han, eskubikoak zein ezkerrekoak, espainiarrak dira eta ez gaituzte inoiz gu aitortuko.

**n) Nola ikusten duzu zuk ETA?**

ETA izan da gure herri honen zinezko ideologia faltaren ondorioa. Ezin daiteke pentsatu komando batzuekin, hortzetaraino armatua dagoen Estatu bat makurtu daitekeenik. Hori erokeria bat da. Borroka armatuaz hitz egiten da, baina hitz egiteran kategoriak tentuz erabili behar dira.

Borroka armatua ejerzitu batek egiten du. ETAk ez du ezer aldatzeko gaitasunik izan inoiz. ETAk zertan bukatuko zuen idatzita zegoen orain 50 urte. Baina ulertzen ez dudana da, zergatik asaldatzen den mundu guztia borroka armatuaz hitz egiten denean. Mundua bera etengabe dago borroka armatuan. Munduko "pazifista" guztien armak batuko bagenitu Himalaia bat egingo genuke.

Gatazka politikoaren soluzioa ez da etorriko armetatik edota bonbetatik. Herri honek behar duena da kultura politikoa. Tinko izaten jakitea. Eta herritar bakoitzak bere egunerokotasunean inkorporatuta izatea bere identitatea. Koraza bat izatea kanpotik datozen zipriztin guztientzako. Inpermeablea izatea. Emantzipazioa aken finean.

**o) Zer da emantzipatze hori?**

Distantzia hartzea. Begira, herri honetan milioi bat emantzipatu bagenitu ezin gobernatuko gintuzkete Madriletik. Muskulatura lortu behar da. Ideologia eta estrategia sendo bat duen corpus bat sortu behar da. Eta nola egiten da hori? Pedagogia eta kultura politikoarekin. Kualifikazio ideologikoarekin. Herria ideologikoki indartu egin behar da norberaren burua emantzipatuz. Diskurtso argia egon behar da zentzu horretan. Milioi bat emantzipatuk edozer lor dezakete. Milioi bat emantzipatu ezin dira kartzelaratu, horri irtenbide bat eman behar zaio. Sistema batek legitimazioa izateko berorren kideen parte hartzea behar du. Eta askotan esaten didate: eta zuk zer nahi duzu tankeekin sar daitezela ala? Sar daitezela. Ikusiko duzu ze argazki geratzen den.

**p) Unibertsitateak ze paper dauka emantzipatze honetan?**

Unibertsitateak gutxi. Euskal Unibertsitatea ez dago gaur egun klabe horretan. Espainolizatua dago unibertsitatea. Eta hori da Espainiaren estrategia. Estatuak armetaz gain, medioak ditu agente guztiak bere zerbitzura jartzeko: dirua, medioak, fama, argitalpenak… Zenbat jende dago herri honetan abertzale zena, baina gaur hori modaz pasatako gauza bat bezala ikusten duena? Hori da baloratu egin dituelako Espainiak jarri dizkion bonboiak eta Estatuak erosi egin dituelako. Espainiaren kulturan eta tradizioan dago menderatzea. "En España nunca se pone el sol". Zer arraio egiten zuten ilunik gabeko Espainia hori lortzeko? Suntsitu, xahutu, odoleztu, erosi, txantajeatu.

**Eskozia eta Euskadi, biak dira herri menderatuak. Inperialistak kasu batean ingelesak dira eta bestean espainolak**

*******

**Herri hau ez zuten bozken bidez menderatu. Biolentziaren bitartez baizik**

**q) Ze ezberdintasun dago Eskozia eta Euskadiren artean?**

Eskozia eta Euskadi, biak dira herri menderatuak. Inperialistak kasu batean ingelesak dira eta bestean espainolak.

**r) Euskarak zer paper jokatzen du emantzipazio prozesu honetan?**

Euskara, euskotarron hizkuntza nazionala da eta hizkuntza propio hori salbatzeko, boterea behar da. Hizkuntzak behartu egiten dira. Espainian espainolez hitz egitera ez al da derrigortzen? Espainolak, frantsesak etabar nazionalistak dira. Euren nazionalismoa besteak euren izaerara berdintzea nahi duena da. Gu, aldiz, erresistentzia nazional bat gara. Baina nik ezagutzen dudan munduan, denak dira nazionalistak. Espainolak hain dira xelebreak, sinpleak, esaten dutela himnoari txistu egitea kirola politizatzea dela. Lotsagarria dela. Eta eurek partidu internazionalak jokatzen hasi aurretik himnoa jartzen dute, eskua bihotzean jarrita. Orain, euskaldunek edo katalanek eurena izan ezkero, hori nazionalismoa da. Eta tranpa honi ez dakigu argumentuekin erantzunik ematen. Guzti horretaz jabetzen garenean, aske izango gara. Askatasuna azkenean egoera psikologikoa da. Ez da kontsulta bat, konstituzio bat. Hori formalizatzea besterik ez da.

**s) Askotan esaten digute: ¡pues te guste o no eres español y punto! Eta pentsatzen dugu: ze tristea ni atakatu behar izatea espainola naizela egotziz. Euren inpotentzia agerian uzten dute, argumentu gehiagorik ez dutelako. Nola erantzungo zenuke zuk?**

Nik hurrengoa esango nioke: Nik ez dizut Espainia kendu nahi. Zu zara niri herria kendu nahi didana. Zergatik? Espainiaren proiektu nazionala kultura biolentoan eta totalitarioan oniarrituta dagoelako.

**t) Martin Ugalderen aburuz Euskadi historiaren aurrean mintzo gabe geratu den herria da, ez baitugu historia nazionalik, ez heroirik, ez konkistarik.**

Badakizue Espainiak zergatik dituen guk ez ditugun ezaugarri horiek? Biolentziaren bitartez egin dutelako euren nazioa. Harrigarria da gu euskaldunok garela biolentziaren paradigma. Baina hain zuzen zerbait ez bagara da herri biolentoa. Guk ez dugu heroi ezta konkistarik ere ez garelako herri biolentoa. Ez dugu biolentziaren deirik izan herri gisa. Herri hau ez zuten bozken bidez menderatu. Biolentziaren bitartez baizik. Herri menperatzaileak herri biolentoak izaten dira. Izan al dugu inoiz bakerik? Bakeak aurkituko bagaitu, soilik askatasunaren kulturatik izango da.

Eskerrik asko,

**Alexander Zapirain**
**Gorka Mostajo**

# Ez ikusiarena

Tabernatik atera zara, baina ez zoaz etxera. Poteoan edandako zerbeza, afariko sagardoa eta bukatu berri duzun Gin-kasak euren bide naturala egin dutenez, kuadrillatik aldendu eta pixa egitera joateko unea iritsi da. Zure herriko festetan ohikoa den bezala, goizeko hiru t´erdietan kaleak jendez gainezka daude, eta zure ihesaldiaren helburua berriketarako gogoa duen ezagun batek atzeratu ez dezan, pausoa azkartu eta aurrera begiratzea da gomendagarriena. "Aupa hi!". Aurrera. "Epe!". Segi. Ezin, ordea, kale itsuan dagoen bikote gazte horren presentziaz jabetzea saihestu. Neska paretaren kontra, mutilak inguratzen du, besotik heltzen diolarik. Eztabaida? Auskalo. Aurrera komun publikoetan misioa bete arte. Itzultzean ez dituzu ikusi.

Taberna ingurura ailegatu eta Iñaki laguna duzu zai zigarroa erretzen; "Nun sartu haiz, motel?, goxoa oraintxe sartu den neska taldea, zakil bila dabiltza". Lokalaren erdialdean dantzan eta selfiak ateratzen ari diren bost neskaz ari da. Martin hurbil, ohi bezala, tragoa eskuan eta txuriz jantzitakoarekin berbetan. Berak alamena ematen, neskak ezetz. Besteak jarraitu. Kitto. "Goazen neskak, tipo nazkantea…". Martin gaixoa… patxaranak aztoratu egiten du. Badoa beste batengana.

Ostatua topera dago, baina zeharkatu behar duzu lagunak dauden txokoraino iristeko. Ilara sortu da jendartetik pasatzeko. Bide estua, martxa motela. Iluntasunean esku galdu bat bakero baten kontra. Ikusi duzu. Neskaren protesta. Ez da zure afera. Eskuaren jabea irribarrez aurrera.

Gau handia izan da, horrelako bat behar zenuen azterketa garaian gogotik ikasi ondoren. Duela gutxi itxi dituzte tabernak eta etxera erretiran joateko ordua iritsi da. Badoa jendea, eta horren artean neska ilehori bat. Mutil talde ugari baten ondotik pasatzera doa. Gertatuko dena somatzen duzu. "Ruubiaa! Hori bai ipurdi politta neska!". Barreak. "¡Gilipollas!". Uuhhh. "¡Si te encanta, guapetona!". Peineta atzeraka, begiratu gabe. Matxoaren azken hitza lagunentzat; "Zorra…". Algaren oihartzunarekin zoaz etxera.

Denak esna bertan. Arreba gaztea iritsi berria da, negarrez. Egungo gazteek ez dakite alkohola edaten. Malkoen arrazoia oso bestelakoa delaz jabetzeko begirada bakarra baino ez duzu behar, zer arraio da hori? Begi ubeldua. Mutil-laguna haserretu egin da. Eta zuk une horretan erreakzionatu.

Hauek, tamalez, gure herrian eta gazteen artean askotan gertatzen diren benetako egoerak dira. Euskadin. Egunero. Gure artean. Emakumeen aurkako jarrera eta ekintza matxistak dira. Matxismoa, emakumea gizona baino gutxiago dela mantentzen duen pentsaera, hots, gizonak emakumea menperatzeko eskubidea duela. ¿Iraganeko kontua? Aitzakiak bilatzea erraza dirudi; "ez da hainbesterako", "normala da festa giroan jendea zertxobait desmadratzea", "beti egongo dira lotsagabeak, baina ez da jarrera orokorra", "ni ez naiz horren parte, gaztea eta aurrerakoia naiz". Erne. Berdin dio komentario sexista hori zure lagun batek esatea. Onartezina. Berdin dio askok egitea barre. Onartezina. Berdin dio zuk bera ez ezagutzea edota gertatzen ari denaz ziur ez egotea. Galdetu iezaiozu. Berdin dio bakarrik zauden ala ez. Besteen laguntza bilatu. Beste alde batera begiratzea egoera onartzea da. Eta onartzen baduzu, gaizkidea zara. Egin ezazu zeure buru eta inguruari buruzko gogoeta zintzoa.

Adituek diotenez, jarrera sexistak saihesteko lehenengo pausoa errealitatea aitortzea da: gure gizartean emakume eta gizonen arteko berdintasun eza. Azken hamarkadetan dezente aurreratu bada ere, desoreka nabarmena baita esparru guztietan, baina bereziki lan arlo, familia eginkizun, harreman afektibo eta ahalduntze ekonomiko eta politikoari dagokienez. Emakumea gutxietsi eta gutxiesten duen gizarte batean bizi gara eta zuzeneko lotura dago, esaterako, normaltasunez egunero entzuten ditugun eta emakumea gutxiesten duten komentarioen, eta maiztasun kezkagarrian hauek pairatzen dituzten erasoen artean. Iturria bera da, matxismoa. Asaldatu egiten gara teleberrian gazte bat bortxatua izan dela entzundakoan, baina ekimena falta zaigu emakumearen aurka egunero eta naturaltasun osoz egiten diren mesprezuei aurre egiteko.

Gure gizarte ereduan ez dira jarrera horiek onartzen, mutil eta neska, emakume eta gizonak, berdintasunez eta elkarrekin lanean dihardugu. Emakumeak libreak dira, ez dira erasoen beldur, gizarte osoak babesten ditu eta gizonezkoek adina aukera dituzte. Hori da gure helburua. Baina kontuz, erronka honetan interesik ez dutenek bidegabekeriaren existentzia bera ukatuko dute, berdintasuna aspaldi lortu omen zen hauen iritziz. Alabaina, ez gara hain inozoak, eta honakoa konpondu gabeko auzia dela jakiteaz gain (urtero euren bikoteek erahildako emakume kopuru ankerrari erreparatzearekin nahiko da hortaz jabetzeko), berdintasunaren erronkan arrakasta lortzeko gazteria kritiko, kontzientziatu eta ausarta behar dugula ere agerikoa da. Adore goresgarria erakusten baitute abusuak jasan eta horiek salatzeko funtsezko pausoa ematen duten emakumeek (zorionez geroz eta gehiago), eta gainontzekoek jarrera baliokidea zor diegu. Aintzakotzat hartu gazte, emakumearen aurkako biolentzia eta gutxiespena gizateriak bere ibilbide luzean jasan izan duen bidegabekeriarik zahar eta latzena dela, eta ez duela onartzen zuk ez ikusiarena egitea.

**Markel Aranburu**

# Erantzunik ba ote?

Eguneroko bizitzan ezagunak eta antzemangarriak diren termino, izen eta irudiei sinbolo deitzen diegu, nahiz eta esanahi arrunt eta agerikoez gain beste konnotazio zehatzak ere izan ditzaketen. Sarritan, sinboloak sentimendu kolektiboak adierazteko erabili ohi dira, zerbaiten adierazgarri diren irudizko zeinuak baitira. Hortaz, sinboloek errealitate zehatzak irudikatzen edota gogoratzen dituzten eta identitate erlazioa ezartzen duten zeinuak dira.

Bestalde, herrialde batek bere balio, xede, historia eta ondasunak irudikatzeko erabiltzen dituen sinboloei nazio sinboloak deritze; eta nazio sinboloek gainontzekoak identifikatzeaz eta gainerakoetatik bereizteko aukera emateaz gain, herritarrak horien inguruan elkartzeko eta kide sentimendua sortzeko aukera ematen dute.

Horrela, bada, nazio eraikuntza prozesu guztietan, sinboloek funtsezko papera jokatzen dute; eta historian zehar, euskaldunok hainbat ikur izan ditugu, neurri batean edo bestean, ordezkatu gaituztenak: Nafarroako Erresumako bandera; Real Sociedad Bascongada de Amigos del Paisek zerabilen “Irurak bat” ikurra; euskal abertzaletasunaren aitzindarietako bat izan zen Augustin Xahok Euskalerrirako 1838an asmaturiko “Kantauriar-Nafarren bandera”; Victor Hugoren 80. urteurreneko Parisko manifestaldian, 1881an, hegoaldeko lau euskal herrialdeak ordezkatzeko erabili zen Soraluce Zubizarreta’tar Pedrok asmatutako “Laurac bat” bandera; 1894an Donibane Lohitzunen ospatu ziren Lore Jokoetarako, Antoine D’Abbadie jaunak asmaturiko Euskalerri osoarentzako “Zazpiak Bat” ikurra…

Aitzitik, Ikurrina da gaur egun abertzaleon artean zabalduena den ikurra, euskal nortasuna defendatzeko eta euskotar abertzaleak batzeko helburuarekin Luis eta Sabino Arana Goiri anaiek 1894. urtean sortu zuten hiru kolorekoa.

Garai hartan, eta orduango pentsamendua agerian jarriz, Arana Goiri’tar Sabinok argi eta garbi azaldu zuen Ikurrinaren kolore eta lerro bakoitzaren esanahia: gorria, euskal nazioaren independentzia; orlegia Gernikako Arbola, eta, harekin, foru erakundeak; eta, zuria kristau gurutzea, Jainkoaren ikurra.

Beraz, Euskadiren askatasunaren ikurra zen Ikurrina, independentziarena, subiranotasunarena. Ikurrinak ez zuen lur zatia bakarrik irudikatzen; gure eskubideen, identitatearen eta lurraldearen defentsarako zutoihala zen; min kolektiboko apeua; bizitza eta sentimendua.

Alabaina, denborak aurrera egin ahala, gizartean gertatu diren aldaketak medio, hasierako sinbologia hura eraldatzen joan da, eta independentziaren grinak bakarrik dirau Ikurrinaren atzean; hori da behintzat abertzaleontzat, gizarte ikuspegi ezberdinak ditugun euskal abertzale guztiontzat, Ikurrinak sinbolizatzen duena.

Hala ere, egun, abertzaleon ideiak gizartean nagusitzen joan diren heinean, sinbologia abertzalea, eta, batez ere, Ikurrina, gizarte osoaren ikur bilakatu da. Hortaz, espainiarrak eta frantziarrak diren asko ere Ikurrinarekin identifikatuak sentitzen dira gaur egun. Benetako aldarrikapena alde batera utziz, inolako erreparorik gabe, naturaltasun osoz erabiltzera iritsi dira. Satsutu egin dute Arana Goiri’tar anaiek sorturiko ikur zoragarria.

Abertzaletasuna euskal gizartean benetan nagusitzeko, hau da, independentzia lortzeko egin behar den bidean, Ikurrinaren berezko esanahia alde batera utzi behar dugu? Edozein bitarteko zilegi da helburua lortzeko?

**Urdangarin Urrutia’tar**
**Jon Andoni**

## Antiguoko Batzokia – 2017.03.24

# Gerardo Bujandarekin Elkarrizketa

Pasadan udaberrian, EGItik Gerardo Bujandarekin batzartu ginen Antiguoko Batzokian. Hasiera batean, Iruñako 1977ko Batzar Nagusiaz mintzatzea zen gure helburua. Hala ere, elkarrizketa aurrera joan ahala gure interesa zabalduz joan zen. Gerardo Bujandak, 99 urtekoa, 80 urte baino gehiago daramatza Alderdian aktiboki militatzen. Egungo oholtza politikoan memoriak daukan gaurkotasuna kontuan izanik, elkarrizketaren norabidea aldatu eta beraren bizipen eta gogoetetan zentratu genuen elkarrizketa.

Maiz, Memoria paperez eraikitako iraganeko elementu estatikotzat hartzen da. Ordea, guk ez dugu horrela antzematen. Memoria etorkizun hobe bat eraikitzeko ezinbesteko ardatz egituratzailea da. Gaurko Memoria, seguru asko biharko "egia" izango da.




Testuinguru honetan, oso interesgarria iruditu zaigu Gerardo Bujanda bezalako figura politiko eta militante baten ibilbide pertsonala EGIn sortu berri den aldizkari honen lehen alera ekartzea. Gure gaurko existentzia, beste batzuen borroka, ahalegin eta sufrimenduen ondorioa da. Hori ezin ahaz dezakegu. Herri honek sufritu duen bortxakeria kolore eta norabide askotakoa izan da eta Gerardo Bujandaren elkarrizketa kontestu honetan kokatzen da; bera, Alderdiaren, eta oro har, euskal abertzaleon eta euskotarron, hurbileko historiaren Memoria bizia baita.

Gerardo Bujanda, 1919an jaio zen Donostian. Jada umetatik, Alderdiaren orbitan ibili zen. "Venía de familia. Estuve muy influenciado por mi hermano, nacionalista vasco, miembro de ELA, y colaborador del Partido. Mi hermana también era de las Emakumes".

Bere lehenengo oroitzapen politikoak II. Errepublika garaikoak dira (1931-1936). Dinamismo politiko handiko etapa izan zen. "Pegaba carteles, participaba en cursos y conferencias...". Hala ere, garaiko ezegonkortasuna eta indarkeria ere gertutik jasan zituen. "Solíamos ir a las peñas de Txímistarri a Igeldo a hacer ejercicios de pistola. Luego a las noches hacíamos guardia en las Iglesias para protegerlas. Allí coincidíamos a veces con los carlistas. Antes de la Guerra había mucha relación entre el PNV y los carlistas. Pero con la Guerra, la relación entre el PNV y el carlismo se rompió".

Guda Zibilaren eztandak (Euskadin, 1936-1937) bizargabe harrapatu zuen Bujanda. "Fui una víctima de la situación. Cumplí 17 años en el frente de Oiartzun, viendo a los requetés al otro lado. La Guerra me quitó la juventud".

Francoren Estatu Kolpearekiko Alderdiaren jarrera eta posizionamenduaz galdeturik, momentuko dudak present ditu. "Yo no tuve duda. Sí la tuvieron Lojendio, José de Arteche, Barriola... Hubo gente del GBB que dudó. Hubo algunas horas de incertidumbre. En el GBB hubo figuras, como José de Arteche, que traicionaron y se fueron con los requetés. En cambio, otros, como los hermanos Irujo, se posicionaron desde un principio en favor del Gobierno legítimo de la República. Creo sinceramente que gracias a los vizcaínos, el GBB se declaró firme defensor de la República. En cuanto a Navarra, ni se movió. Si se llega a mover no queda ninguno".

Gudaren kontestuan, Saseta batailoi famatuaren sorburuan egon zen Bujanda. "Estuve desde un principio en el germen de lo que sería el batallón Saseta. Estuvimos tres hermanos allí. Los componentes del Saseta fuimos hombres de primera hora. En mi caso, yo era un chaval. Hacía labores auxiliares y de enlace".

Gerraren zurrunbilo odoltsuaren itzalpean, etengabeko joan-etorrian bizi izan zen. Kolpistek aurrera egin ahala, mendebalderantzko bidea hartu behar izan zuen. "Anduvimos por innumerables frentes. Donostia, Oiartzun, Elgoibar, Markina, Amorebieta... hasta terminar en Bilbao. Mi hermano murió en Bizkaia y lo enterramos en el cementerio de Derio. Cuando cayó Bilbao, fuimos andando hasta Balmaseda. Después a Monteano. Allí se deshizo el Saseta en agosto del 37". Alderdiaren jokamoldeaz galdeturik, haren gizatasuna azpimarratzen du. "Nosotros no hicimos daño gratuito. En comparación con otros, el Partido fuimos unos meapilas durante la Guerra Civil. Nosotros tratamos de actuar de la forma más humana posible, intentando evitar en lo posible el dolor gratuito".

Faxisten esku erori ondoren, periplo luzea pasatu zuen kontzentrazio-esparruetatik, frankisten hatzaparretan: "Tras el engaño del Pacto de Santoña, el día de mi 18 cumpleaños, el 25 de agosto del 37, me cogieron los italianos en Santoña. De allí me llevaron a Laredo. Me afeitaron por primera vez en el campo de concentración. Estábamos tanta gente allí que el agua era marrón. Dadas las condiciones, terminé cogiendo el tifus, tras lo cual me trasladaron al sanatorio marítimo antituberculoso de Santander. Entré con 47 kilos. He de decir que en mi caso los italianos me trataron bien. Tras dejar Cantabria atrás, me mandaron al campo de concentración de Miranda de Ebro. Allí estuvimos en condiciones pésimas. Sin comida, unas condiciones higiénicas horribles, trabajando muy duro… En los campos de concentración me han dado palizas enormes, he presenciado fusilamientos... De Miranda de Ebro me mandaron en tren a Extremadura. Luego pasé por Toledo, Ciudad Real, Guadalajara, etc. Allí trabajé en los batallones de trabajadores. Entre otros haciendo trincheras y desenterrando a los fusilados por "los rojos". He visto barbaridades. ¿Sabes lo que es sacar muertos, pero no esqueletos, sino muertos que todavía no se han desecho? Yo eso no lo puedo olvidar. Al final, gracias a mi tío, que pagó para cambiar mi informe, pude dejar el batallón de trabajadores para ir a África como soldado".

**ETA se fundó con gente del Partido. Gente que había estado conmigo se hizo de ETA. Hubo un trasvase de gente. Fueron gente muy valiente para dar el paso en aquel contexto de represión**

1946an, 27 urte zituela, "askatasuna" berreskuratu zuen. Hala ere, lasaitasunak gutxi iraun zuen berean. "Mi hermano estaba en el penal de Cádiz, mis tres hermanas en Francia. Qué hacer? Me metí de nuevo a militar en la clandestinidad. Formaba grupos, poníamos ikurriñas, hacíamos pintadas, sacábamos panfletos, etc. La clandestinidad se convirtió en una forma de vida".

**Si desde mi vivencia tuviera que elegir una fecha concreta para iniciar el relato de la Memoria, me remontaría al año 1934**

Kontestu honetan, gure memoria hurbileko une zentral bat jorratzen du Bujandak. Izan ere, lehen eskutik bizi izan zuen ETAren sorrera. "ETA se fundó con gente del partido. Gente que había estado codo con codo conmigo se hizo de ETA. Hubo un trasvase de gente. Yo creo que tuvo bastante culpa el Partido. La intransigencia de algunos dirigentes para dar cabida a una nueva generación más atrevida, más impulsiva. El PNV no les bastaba. Así se pasaron muchos. Lo que les diferenciaba era la acción. Era gente muy valiente para dar el paso en aquel contexto de represión. En mi caso yo no tuve la tentación siquiera de dar el salto. El entorno ejerció mucha influencia en mí. Recuerdo la famosa frase de Juan Ajuriaguerra de que "en la violencia se sabe cómo se entra pero no cómo se sale". Nahiz eta zenbait sektoretatik historia eraldatzen saiatu, Bujandaren bizipenek argi erakusten digute ETA zapalkuntza kontestu baten jaio zela. ETAko sortzaileak ez ziren terroristak ezta marxistak. Euren herriaren jazarpen eta biolentziaren aurka gizakiek duten *ultima ratio* deritzona hartu zuten: armei armekin erantzun.

Memoriaren auziaz galdeturik, oso gai korapilotsua dela erantzuten du. Besteak beste, non kokatu gatazka politikoaren sorburua? Estatuak, gatazkaren sorburua 60ko hamarkadara mugatu nahi du. "ETA nació para luchar contra la libertad y la democracia" lelopean, Estatuak, euskal gatazkaren abiapuntua ETAren sorrerarekin lotzen du. Bujandak argi dauka gatazkaren erroak askoz ere sakonagoak direla. "Es difícil, a la par que necesario, poner una fecha de donde partir con el relato de la Memoria. Es verdad que el "sujeto vasco-navarro" viene de lejos; la ideología que crea Sabino Arana es fruto de un conflicto. Todas las fechas tienen un pasado, un antes que las condiciona. Aún así, si desde mi vivencia tuviera que elegir una fecha concreta para iniciar el relato de la Memoria, me remontaría al año 1934 [1934ko saiakera iraultzailean, non sozialistek bere anaia atxilotu zuten]".



Francoren heriotzaren ondoren (1975), Alderdia berrantolatu eta klandestinitatetik irten zen. Bujandak lehen mailako papera jokatu zuen, askok "trantzisiotzat" izendatzen duten prozesuan. Besteak beste, Txibertako solaskideetariko bat (1977), GBBko kide (1979) eta Kongresuko Diputatu (1979) izan zen garai hartan.

Prozesu hartaz galdeturik, segituan erantzuten du: "No fue una transición, fue una transacción. Fue un cambio de cromos. Los que tenían el poder cedieron en lo cosmético para seguir conservándolo". Erantzun horren aurrean, EAJren parte hartzearen zergaitiaz itauntzea derrigorrezkoa da. "El PNV entró en el juego de la democracia; en el juego donde siempre ha participado el PNV. Por el contrario, la deriva de ETA se agudizó a partir de Txiberta. La transición fue un camino hacia la democracia. Y todavía estamos recorriéndolo. España no es aún un país democrático. En primer lugar, véase el ejemplo de Catalunya. O nuestro ejemplo. El golpe que le dieron a Ibarretxe en Madrid demuestra que no hay democracia. Ahora, con los cambios que se están sucediendo estos últimos años, se está avanzando. Pero sigue habiendo partidos que nos quieren convencer que la unidad de España está por encima de todo, incluso de la democracia".

**No fue una transición, fue una transacción. Fue un cambio de cromos. Los que tenían el poder cedieron en lo cosmético para seguir conservándolo**

Gerardo Bujanda euskal historiaren lekuko zintzoa da. Bere esperientziek tinko mantentzen dute bere sinesmenetan. Horregatik EGIkideok esperientzia hauek eta bere ondorioak ikastea ezinbestekoa dela uste dugu. Espainiar Estatu unitarioak makina bat medio ipini ditu martxan historia berridatzi eta gure kontzientziak menperatzeko. Hala ere, Bujandaren eskuzabaltasun eskergak erakusten digu ezin dugula odolez defendatu dugun askatasuna txerri-haskara bota, edota errelatu faltsuen bidean lurperatu. Euskal abertzaleok helburu bat daukagu: euskal aberriak organizazio propio bat izatea, Estatu bat alegia. Espainiar abertzaleek ordea kontrakoa dute: euskal aberria menperatu eta espainiar nazionalitatea inposatzea. Beraz argi dago non dagoen gatazka, non dagoen gure akzio politikoaren muina. Militantzia eta konpromezua gaur egun eraldatu egin dira: gaurko trintxerak eta gaurko armak ez dira lur edo berunezkoak. Gaurko armak ezagutza eta inteligentzia dira. Horregatik, har ezazue abertzaletasun eta jeltzaletasun adibide hau eta ikas ezazue bere irakaspena. Eman eta zabal itzazue herri honek bere askatasun bidean daramatzan zauriak eta burujabetu zaitezte, etorkizuna gurea baita. Bejondeizula Gerardo!

Eskerrik asko,

**Mikel Bizkaia**
**Alexander Zapirain**

## Novia Salcedo Fundazioaren kolaborazioa

# Retos de la juventud vasca en un entorno global

Para la Fundación Novia Salcedo es una gran satisfacción el haber sido invitados por EGI para colaborar en el número inaugural de OSTARTE, nuevo medio de comunicación diseñado para el entorno digital.

Aplaudimos la iniciativa porque supone un paso en la dirección adecuada al fortalecer la sociedad civil y el diálogo entre diferentes, conceptos ambos que están profundamente arraigados en los países líderes en el IDHI, Índice de Desarrollo Humano e Igualdad.

Firmamos este trabajo Begoña Etxebarria[1] y Luis Cañada[2] que hemos elaborado en un diálogo específico. Deseamos que OSTARTE se convierta en una coordenada de referencia y reflexión sobre la compleja problemática de la juventud, cuando menos en Euskadi y en todo ámbito socioeconómico mundial de habla hispana.

**BE.- Luis, ¿Qué te animó a unirte a NSF?**

LC.- En mi época de trabajo[3] conocí NSF en 1993 porque necesitábamos incorporar talento a la empresa para poder mantener la posición de liderazgo mundial que habíamos conseguido pocos años antes. Nuestra opción fue incorporar jóvenes para formarlos en casa y hacerlo con Novia Salcedo. Hicimos una prueba y nos gustó la calidad, el cuidado, el talento, la emoción que Novia Salcedo puso en la colaboración. Apostamos por la Fundación y acertamos. Las personas jóvenes que vinieron, y quisieron, se quedaron, eran excelentes y hoy son la base del equipo directivo de la empresa. Me llamaron la atención vuestra preocupación por hacer bien las cosas, por defender las condiciones laborales de los jóvenes, vuestra cultura de vivir la empresa con "valores". Erais diferentes. Decidí seguiros a distancia.

Vi cómo sorteabais las turbulencias de la economía con serenidad, cómo optabais por el riesgo en la gestión al apostar desde el principio por el EFQM, cómo vuestra profesionalidad os llevó a conseguir dos premios europeos, cómo eráis independientes y luchabais por preservar vuestra libertad, cómo queríais conocer los porqué del "aghettamiento" que la sociedad somete a la juventud en el acceso al mundo laboral, me fascinaba vuestra obsesión de acudir lo mínimo posible a los fondos públicos, que fuerais una referencia ética, que siendo pequeños tuvierais la osadía de crear un think tank: "Ícaro", que decidierais vivir en la frontera del conocimiento, que eligierais la "vida" compleja y difícil pudiendo tomar el camino del confort.

Estando dentro veo que hay mucho más, sois una olla a presión donde se cocinan ideas para mejorar las condiciones vitales de la juventud. Como ejemplo, ahí están el proyecto de la Década del Empleo Juvenil que os ha llevado a ser Organización con estatus consultivo ante el ECOSOC de las NN.UU., el LanalAldi Eskolan, el Nuevo Modelo de Empleo, la Empleabilidad 4.0 y tantos otros. Parece que no descansáis nunca.

Como eres una autoridad en el empleo juvenil, si me lo permites yo hago las preguntas.

**LC.- Begoña, sabiendo que el origen de NSF está en la pregunta que hizo en 1979 su fundador Txomin Bereciartua: "no te quejes de "otros", ¿qué puedes hacer tú para mejorar el acceso de la juventud al trabajo decente?", ¿Qué hace hoy la Fundación para facilitar el tránsito digno de la juventud al mundo laboral?**

BE.- Tenemos muchos "haceres", i.e. además del plurianual mencionado de la Década del Empleo juvenil, está establecer una alianza con la OIT, estamos potenciando nuestra internacionalización para conocer las mejores prácticas, creando Empleabilidad 4.0 para, convirtiendo los datos en Información y conocimiento, profundizar en las causas raíz y buscar soluciones a la empleabilidad juvenil.

---

1 Directora de la Fundación desde 1987.

2 Presidente desde 2013.

3 Era Consejero y Director general de Vicinay Cadenas.

**LC- Igual es bueno que los jóvenes conozcan nuestro último balance y tu visión del problema.**

BE.- En NSF 2016 ha sido un año positivo. Con la contribución de 694 organizaciones y empresas, hemos propiciado que 867 jóvenes desarrollen una formación práctica en empresas, de los cuales 675 han conseguido un contrato laboral, así mismo 1418 jóvenes han optimizado su empleabilidad con formación y orientación laboral.

En Euskadi, según los últimos datos de Lanbide -mayo 2017- tenemos 134.236 demandantes de empleo, de ellos 33.040 jóvenes de entre 16 y 34 años, el 33%. 10.910 con formación superior. En el Estado la cifra se eleva hasta el 41,6% en el primer trimestre de 2017 y la tendencia global es más desempleo, más precariedad y mucha más incertidumbre. En todos los informes de la OIT a nivel mundial se ve claro que en todas las economías, la tasa de paro juvenil multiplica por 2,7 la de adultos.

**LC- Con todos estos datos en la mano y teniendo muchos jóvenes con empleos precarios, ¿qué tipo de empresas y de sociedad necesitamos?**

BE.- Ésta es la pregunta clave. La implicación de toda la sociedad es imprescindible. Necesitamos un entramado social y empresarial implicado con su entorno, con sus jóvenes que son el futuro y con la sabiduría suficiente para conciliar competitividad con bienestar social.

Tenemos que elaborar un nuevo relato del significado de la economía como conformadora de sociedades inclusivas "para que nadie se quede atrás" según dicta la Agenda Mundial 2030 (ODS), necesitamos incentivos a la contratación con rendición de cuentas sobre los Fondos Públicos que se utilicen. No podemos permitirnos ningún despilfarro.

Las empresas deben interiorizar la innovación social, entendiendo ésta como un profundo cambio en la forma en la que uno se relaciona con la organización y con las personas con las que trabaja, para poder crear conocimiento y flujos nuevos. En la medida que la innovación se integre en los procesos de construcción de conocimiento el aporte de la innovación tecnológica a la mejora de los resultados aumentará.



Novia Salcedo lan taldea

Un importante desafío es la coordinación de todos los agentes para diseñar una respuesta integrada a los retos planteados, necesitamos crear alianzas inclusivas (ODS-17) y construirlas sobre la base de principios y valores, con visión y objetivos compartidos priorizando las personas y el planeta, siendo necesarias tanto a nivel mundial como regional y local.

**LC- Veo que la tecnología es cada vez más importante, ¿crees que va a afectar a los trabajos?; ¿cuáles serán las competencias necesarias en el futuro?**

BE- Cierto, la tipología de los trabajos está sufriendo una importante transformación fruto de la tecnología y la robotización. Tenemos constatado que los trabajos y tareas que sean repetitivas se robotizarán consiguiéndose una mayor calidad y mejora de la productividad, quedando para las personas lo que los robots y las máquinas no hagan, como es crear conocimiento para diseñar y realizar el trabajo de una manera competitiva e innovadora.

Los jóvenes del futuro necesitarán, sí o sí, cooperar entre diferentes, estar orientados a la excelencia, ser creativos, productivos, participar en la gestión responsabilizándose de los resultados, teniendo competencias de creatividad, participación, liderazgo compartido y mucho emotalento.

**LC- ¿Algún mensaje para los jóvenes?**

BE- Les digo que como sociedad les necesitamos y que les debemos poner en el centro, que son parte de la solución y para ello tienen que trabajar por su empleabilidad, que obviamente está vinculada al modelo de cultura empresarial y al conjunto de valores dominantes en la sociedad en la que viven.

La empleabilidad para un joven es un proyecto a construir cada día, que requiere profundos cambios tanto en los métodos de enseñanza, formación y trabajo de las organizaciones, como en las competencias que deben adquirirse y/o reaprenderse continuamente, debiendo estar orientada a la creatividad y la cooperación apoyándose en valores sociales que apuesten por la productividad sin olvidar el bienestar social.

Qué están llamados a ser el gran dinamizador de la Agenda Mundial 2030 (ODS-8.b).

**LC- ¿Y para la sociedad?**

BE- Que abordemos sistémica y estructuralmente la innovación social para permitir a la juventud encontrar su espacio digno en el mercado laboral, ofreciéndoles herramientas para ello, permitiéndoles emprender y crear su propio puesto de trabajo, para que pasen de buscadores a creadores de empleo.

Todos debemos comprender que el relato del empleo y el trabajo seguro para toda la vida se está terminando.

# Atzerriko kuriosidadeak

Normalidad democrática.



12:10 p. m. · 28 jun. 2017

Si, eso es una bandera nacional.

**Grupo Popular Madrid**
@GrupoPPMadrid

@ALevySoler: Creo en la Libertad. Me opongo al nacionalismo. Porque quieren romper con la convivencia que construimos con mucho sacrificio.



19/6/17 11:16 desde Madrid, España

**Cris**
@gallifantes

No puede ser que esté tan desinformado.
No sabe que UK ya dialogó?
Con los gibraltareños. Referéndum le llaman.




8:47 a. m. · 13 jul. 2017




ALDE
AhoraMasQueNunca.es


Carlos Iturgaiz
@carlositurgaiz
Yo también quiero ejercer mi libertad de expresión para decir a todos los que han pitado el #HimnoNacionalEspaña que son unos hijos de puta
27/5/17 21:40
#Demokrazia irabazi du


ElChorreoEspañol
-10.000 personas en mani anti-indepe = miles de personas se manifiestan
-30.000 votando sobre estado vasco = la consulta SE QUEDA en un %25
La participación en las consultas de Gure Esku Dago se queda en un 25%
Miles de personas se manifiestan en Barcelona contra el «golpe separatista»


Altsasu
Benicássim
La Fiscalía pide 375 años de prisión para los ocho acusados de la agresión de Altsasu


Partido Popular
@PPopular
"Puigdemont quiere hacer un referéndum en lugar de escuchar a los catalanes" @Sorayapp
1:24 PM - 29 mai. 17

# PRO LIBERTATE
# PATRIAE

# GENS LIBERA
# STATE